

ttipi ttapa

388


2004ko abenduaren 23a • XXIV. urtea



Migel Mari Elozegi eta hartzak

03

Migel Mari Elozegi Leitzako biologo eta basozainak Juan Zelaia saiakera saria irabazi du «Hartzak Pirinioetan XXI. mendean» idazlanarekin.



Dirulaguntza politika aldatzeko aldarria

04

Baztan, Bera, Goizueta, Leitza eta Lesakako Udalek Nafarroako Gobernuaren funtzionamendua eta dirulaguntza politika errotik aldatzeko eskatu dute.



Pello Apezetxea

**Ohorezko
Euskaltzain
izendatu dute**

38

MULTIOPTICAS Gabonetako Opariak



P.S.P.: 50€ Gabonetan 42€

P.S.P.: 45€ Gabonetan 33€

P.S.P.: 45€ Gabonetan 35€

Zure Varilux® PROGRESIBOAK egokituta, opari hau:

Crizal ALIZE relin eguna garbiago. Erreflexu-contrako tratamendu berria, ez daukazu garbitu beharrik.

ESSILOR

Mendibil Merkatal Gunea • Tel.: 943 63 99 10 • IRUN

MUEBLES A METS

Iarunbat arratsaldetan irekia

4000 m² erakusketa

Sarrera BERAtik da
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Ifnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE WEB ORRIA
www.mueblesamets.com




- Sukaldeak
- Egongelak
- Logelak
- Bainugelak

Egongelako altzarietan aukera zabala



DATUAK...

• Piriniotako azken plantigradoak «Hartzak Piriniotan XXI. mendean» Migel Mari Elozegi leitzarrak eginiko lana eta gogoetak saritu dituzte Juan Zelaia saiakera sarian Joseba Azkarragak egin duen «Diruak behar luke bihotzik» liburuarekin batera.

• Migel Mari Elozegi "Luze" basozaina da Leitzan, eta aspaldian sortu zitzaion hartzekiko interesa. Batez ere, ohartu zenean animalia honek izan duen eta izan beharko lukeen garrantziaz.



Migel Mari ELOSEGI *Leitzako biologo eta basozaina*

«Gizarteak hartza kontserbatu nahi badu Pirinioan bizileku egokia dauka oraindik»

Mikel ILLARREGI

Hartzarengandik zer ikasterik ba al dugu, zergatik da interesantea animalia hau?

Gauza asko dugu ikasteko, noski. Adibidez, izugarritzko gaitasuna du egoera zailei aurre egiteko. Neguan bi hilabete (hemen, Alaskan sei) igarotzen ditu lotan nahikoa jan ondoren.

Hartzaren defentsa sutsua egiten al duzu?

Sutsua baino gehiago konbentzitu. Kontserbatzeak merezi duela uste dut. Berehala ohartu nintzen hartzak sekulako garrantzia izan zuela Pirinioetan ez ezik inguruko herrietan ere, oso berezia zela. Eta konturatu nintzen desagertzen ari zela, oso zaila zuela Pirinioetan jarraitzea.

Orain badirudi denok sensibilitate berezia dugula animalia honengana...

Betikoa, arazo handiak gertatzen direnean denak jartzen gara horrela, gizarte horrelakoa da...

Hainbat ikuskizunen sortzaile zara, antzerkigile batez ere, zeure gidoietan sartuko zenuke gai hau?

«Hartza berezia zan da artzaintzat eta inguruko bizilagunentzat ere. Dena dela, eta normala denez, aziendak dira garrantzitsuena abeltzaintzat»

nola?

Bai, baina niri antzerki lanetan umorea gustatzen zait eta oraingo Pirinotako egoera ez da umoretsua.

Ekologista osoa izateko zer falta zaizu?

Ekologista izatea. Nik bat egiten dut haiekin, baina gauza askotan ez.

Saria jasotzerakoan zer sentitu duzu?

Poza handia, baina ondorengo gutzia; komunikabideak batez ere... tokiz kanpoko iruditu zait.

Eta saria bien artean banatu behar zenuela jakiterakoan, sari erdia alegia?

Poza handia. Norbaiti nire lana gustatu zaiol! Ondorengo (komunikabideak...) gehixko.

Zure sentimenduaren aldeko artzairik ba al da?

Bai, batzuk bai. Hartza berezia izan da haien zat ere. Dena dela, eta normala denez, aziendak dira garrantzitsuena abeltzaintzat. Oso garrantzitsua da jakitea bertako batek, artzain batek edo inguruko bizilagunek, zer duten hartzaren kontra eta zer alde.

Nork du kontzientziarik gehien?

Mundu urbanoan bat egiten dute hartzarekiko jarrerarekin, eta nekazaritza munduan gehienek ez, baina gauzak aldatzen ari dira.

Yoggi marrazki bizidunetako hartza zer?

Aspaldian ikusi gabe dut, baina irudiek asko balio dute pertsonok hartzengana hurbiltzeko.

Hartza bi hitzetan.

Ederra eta egurtua.

Ze galdera jarriko zenuke zuk elkarrizketa bukatzeko?

-Ze etorkizun ote du hartzak Piriniotan? Erantzuna: Orohar mundu mailan hartza ez dago arriskuan baina Piriniotan desagertzeaz dago. Dena dela, gizarteak kontserbatzea erabakitzen badu, Piriniotan bizileku egokia dute oraindik. Odol berria behar...



ANTONIO ARGAÑAN

Mendietako bideetan egin beharreko lan guztiak abenduaren 30erako akautuak eta justifikatuak egon beharko direla jakinarazi dute Nafarroako Gobernutik.

BAZTAN, BERA, GOIZUETA, LESAKA ETA LEITZAKO UDALEK

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza politika errotik aldatzeko eskatu dute

Baztan, Bera, Goizueta, Leitza eta Lesakako Udalek bere kezka eta salaketa agertu nahi izan diote Nafarroako Gobernuari, oro har, eta Toki Administrazioako Departamentuari, bereziki. Bortz udal hauetako ordezkari gisara Helena Santesteban eta Jon Abril Berako alkate eta zinegotziak, Virginia Aleman Baztango alkateak, Laura Igantzi Lesakako zinegotziak eta Jon Ultzi Goizuetako zinegotziak prentsurrekoa eskaini zuten abenduaren 10an Iruñean. Nafarroako Gobernuaren funtzionamendua zein dirulaguntzen politika errotik aldatzeko garaia heldu dela zioten.

Aitor AROTZENA

Joan den udan, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioako Departamentuak mendietako bideak moldatzeko dirulaguntza deialdi bat argitaratu zuen. Mendialdeko bortz udalok beraien egitasmoak aurkeztu zi-

tuzten, eta azaroaren 15era arte ez dute horien esleipenen berri jaso. «Gure harridurarako, lanen esleipena, ejekuzioa eta gastuen justifikazioa egiteko hilabete bateko epea paratu zigun Nafarroako Gobernuak, baldintza normalean ezinezkoa, legediak

berak ezartzen dituen epeak ezin zirelako bete, tramitazioa bera zenbait kasutan luzeagoa baita (baldintza pleguak prestatu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eskaintzak aurkezteko epea utzi, esleitu, lanak egin...)». Bortz udal hauetako ordezkarien ustez, Nafarroako Gobernuak ez du batere zuzen jokatu, deialdia bera lehenik, eta esleipena gero, izugarri berandu argitaratu dituelako, eta orain, «urtea bukatu aitzinetik guri lanak gaizki eta presaka egitera behartzen digulako, edo bertzelakoan, dirulaguntzari uko egin eta mendi-bideak konpondu gabe uztea, gure udalietarako zein bizilagunentzat horrek dituen zuzeneko ondorio kaltegarriekin. Susmoa dugu hori bera dela Gobernuak bilatu duena, dirulaguntzak

Jon ABRIL Berako alkate ordea



Diskriminazio edo zigor politika baten aitzinean gaudela erraten ahal da?

Funtsean, zaharkitua gelditu den funtzionamendu eredu baten krisia da, dirulaguntzen bidez funtzionatzeara. Alde horretatik mendialdea hagit baztertua dago, nagusiki kolore ezberdinekoak diren udaletan gehiago nabaritzen da faborismo politiko hori. Hori sailhes-teko bidea aldarrikatzen dugu, Gipuzkoan ere funtzionatzaren duena: dirulaguntzen bidez baino transferentzi zuzenen bidez lan egitea. Urte hasieratik udalei, nagusiki biztanle kopuruaren arabera eta kontu zuzentzaile batzuekin, dirua eman eta udalak berak erabaki dezala diru hori zertan erabili. Udalei benetako protago-

nismoa eman eta udalek izan dezatela erabaki ahalmena, eta ez orain gertatzen den bezala, Nafarroako Gobernu departamentuetako kontseilari edo zuzendari nagusiek erabakitzea.

Bortz herriako ordezkariak agertu zarete baina mendialdeari orokorrean eragiten dio egoerak...

Iparralde osoari, Erronkari, Aezkoa, Erroibar eta bailari hauei guztiei ere eragiten die. Biztanle aldetik herri titikiak gara, demografikoki pisu titiki daukagu. Nafarroan bi ardatz nagusi osatu dira, lurraldea eta Tuteralea, gehienez ere Tafalla eta Lizarrara zabaldua, eta gainerakoak Nafarroa horretatik kanpo utzi gaituzte.

Mendi bidetarako inbertsio handiak aurrikusiak zeni-

tuzten... Dirulaguntzarik gabe bertan behera geldituko lirarteke lan hauek?

Lanak hasi hasiko dira. Ikusi beharko da abenduaren 30erako akautu eta justifikatu ahal izanen diren. Dena den, kasu gehienetan ez dira modurik egokienean eta patsadatsuenen egin, zerbaitetan tramite batzuk saltatuta eta planifikazio egokirik gabe. Epeak betetzen ez badira dirulaguntza galduko da eta udalentsat ikaragarritzko gainkarga izanen da. Milioi aunitzetako dirulaguntzak dira, Beran eta Leitza apalagoak dira, baina Baztanen kasuan 100 milioi pezeta inguru. Hori ukatuz gero, Udala itto egingen luke. Nafarroako Gobernuak epea ez duela inola ere gehiago luzatuko jakinarazi digu.

«Kolore ezberdineko udaletan gehiago nabari da bazterketa politiko hori»

ez emateko, espresuki agertu dadin guk egiten diogula uko, eta euren diru kontuak egoera hobean egon daitezen urte amaieran. Ba jakin dezala Toki-Administrazio Departamentuak, ahailegin guztiak egiten ari garela lan horiek egiteko, maiz, legalitatea bazterrik bazter darabilgula, eta erritmo ero batean, lan baldintza kaskarretan».

Behin eta berriz gertatzen den jokamoldea da honakoa, eta UPN-CDN-ren gobernuari ozen salatu nahi diote jarrera hau, «bereziki mendialdeko herrietan begirune eza, bertako errealitateari bizkar ematea, eta euren axolagabekeria, utzikeria, eta funtzionamendu eraginkor eza guk ordaindu beharra guztiz deitoragarria baita».

Herri Administrazio Departamentuaren jarrera bera ikusten dute Gobernuaren Departamentu guztietan, eta udal ordezkarien ustez «argi dago, beraz, estrategia baten baitan dagoela politika hau, eta udalek bizi dugun egoera itogarria are itogarragoa bihurtzen duela». Baztan, Bera, Goizueta, Leitza eta Lesakako udal ordezkariak aipatutakoaren arabera, «Nafarroako Gobernuak errotik aldatu behar du funtzionamendua zein dirulaguntzen politika, bertze lurraldeetan egiten den bezala, transferentzi bidez jardunez udalerriekin, eta ez, maiz ger-



Dirulaguntzen bidez funtzionatzearan ordez, transferentzia zuzenen bidez lan egitea proposatu dute bortz herriotako udal ordezkariak.

tatzen den moduan, mesede politikoetan oinarritutako dirulaguntza sistema zaharkituen bidez aritzea. Nafar guztientzako politika egiten has dadila eskatzen diogu, eta nafar guztiak modu berean tratatuak izan gaitzezela, geografikoki nongoak garen, edo politikoki zein koloretakoak garen kontuan hartu gabe». Modu berean, gai

honetan, eta aitzinetik ere bertze aintzetan, erakutsi duten negoziatzaileak malgutasun eza salatu dute eta dei egin diote gauzak legeak ezartzen duenaren arabera egin ditzatela, lan funtzionamendu arrunterako egutegiak finkatu ditzala, eta toki-administrazioetako erakundeak aintzat hartzea, elkarlanean jardutea, funtsean.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Franko Itundua: 34/79
Comision Paritaire: En cours
TIRADA (Tirage): 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria
Andutza, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
ttipi-ttapa@ttipi.net

ARGITARATZALEA (Editeur): ttipi-ttapa fundazioa. PRESIDENTEA (Président): Pello Apeztegi. KUDEATZALEA (Gérant): Joxemane Irigoin. ZUZENDAKARIA (Directeur de publication): Aitor Arotzena. PUBLIZTATEA (Publicité): Kulturkari, SLU ADMINISTRAZIOA (Administration): Amaia Gola. BERRIEMALEAK (Collaborateurs): Mikel Ilarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Salazar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Iñitza eta Eneko, Nerea Altsuiri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarrat, Nerea Mitxelena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Gofí, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...

INFORMATIOA (Imprimeur): Gertu. ERAKUNDE LAGUNTZALEAK (Avec la participation de): Bera, Leiza, Golzueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Sempereko udalak, Zugarramurdiko Aklarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Mallerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
España	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Mallerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Zergatik ez Labiaga?

Gure zonaldean «behar den bezalako» ikasketxe nagusi bat sortzeko hezkuntzaren monopolizaketa suposatuko luke, gurasoek, monopolizatik, euren seme-alaben hezkuntza eredu aukatatzeko eskubidea erabat ez ezatutako lukeena. Beraz, «Labiaga» eta «Toki-Ona» proiektuen artean aukeratu ahal izateko abantaila da guztiontzat.

Bestalde, Labiaga Ikastola legeztatzearen ezintasuna Nafarroako Gobernuari eta zenbait heritarrei zor diogu, ikastolaren eskubideak zapaldu baino zapalduago agertzen zaizkigularik.

Hezkuntza baliabideei dagokienaz, Labiaga Ikastola 3-16 urte bitartean guztiz euskalduna da eta betidanik dibertsitatea landu izan da. Zailtasunak dituzten ikasleek laguntza eta arreta berezia jasotzeko aukera dute alegia. Ikasleak orohar ongi atendituak daude eta ez dugu uste ikasle kopuru handiak heziketa hobea ziurtatuko digunik.

«Labiaga» eta «Toki-Ona» proiektuek planteatzen diguten egoera edo arazoa batzuen hitzetan, osotasunean hartu ahal izateko edo moldatu ahal izateko, guraso orok gure seme-alaben hezkuntza eredu aukatatzeko eskubidea izan beharko genuke, baldintza berdinetan guztioi, Nafarroako Gobernuaren eta gure herrietako Udalen babespean. Tamalez hau ez da errealitatea, Labiaga Ikastolaren alde gaudenok «arazo bat» baikara.

Bukatzeo, guraso aunitz behar eta nahi duguna eskatzeko kapaz gara eta ez gaituzte ez aditzen ezta errespetatzen ere. Ez gu, ezta gure umeak ere, batipat gure ustez publikoak diren eremuak (kiroldegia, parke bikia, Alzateko frontoia adibidez) debekatzen saiatzen zaizkienean, Labiaga Ikastolan partaide izateagatik.

Hitz egin beharko genuke bai, denok eskubide, baldintza eta erraztasun berdinarik izanda.

Zein da UPN-k Labiaga Ikastola deusezteko duen interesa haundia?

Asier Senper
Mazizior, Ainhoa
Senper Mazizior eta
bertze guraso eta
ikasle ohiak

Jose Maia Dondarieta amaiurtarraren heriotzaren bigarren urteurrenean

Hostoak lurrera erortzen diren bezala, Malkoek egindako bideetatik Oroimina datorrit. Oroitzapenak bide hori Desegiten laguntzen didate, Eta udazkeneko zuhaitzak bezalaxe Mila kolore arrek soinekoa janzten dut...
...hosto ximel batzuk erori, baina beste batzuek tinko eusten diote zuhaitzari, adarrari.

Agur erran genion elkarri, Bidai hori hasi zenuenean, eta Agurra ez zen betirako, Betiko oroitzea baizik. Oroitzea, bidai baten banantzearen ondoren, Agian, elkar ikusiko dugula Toki zoragarri batean, agian, Ez badugu elkar ikusiko ere, Noizbait ere elkartzeko itxaropenaz Beti bizitzen, Zoriontsu.

Ainara MAIA URROZ
Irun

Bidali ttipi ttapa

herritik kanpo

bizi diren lagun edo familiakoei

(+34) 948 63 54 58

KULTURA

Maider Ansa aranoarrak irabazi zuen Euskal Kantu txapelketa

Bakarlarien artean Estitxu Pinatxo beratarra bigarren izan zen

Joseba OLAGARAI

Nafarroako Euskal Kantu txapelketaren 12. edizioak maila bikaina erakutsi du. Mutloa Gaitiko eta Larraintzako kanporaketaren ondoren, azaroaren 27an final nagusia burutu zen Doneztebeko Bortatxo dantzalekuan. Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatu eta Doneztebeko Udalak, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Rural Kutxak babestu eta lagunduriko saioan, 19 bakarlari, bikote eta talde aritu ziren oholtza gainean, kantu zaharrak eta berriak kantatzen. Guztiek bere lana egin ondoren, partaideek eta publikoak elkarrekin kantatu zuten, ekitaldi hasieran banatutako liburuak jarraituz.

Sariei dagokionez, bakarlarietan, sari nagusia Maider Ansa aranoarrak eraman zuen; eta bigarren postuan Estitxu Pinatxo beratarra gelditu zen. Eskualdeko partaidetzari dago-



Argazkia: EDORE ZUBIETA

Entzulegoaren saria ere Estitxu Pinatxo beratarrentzat izan zen.

kionez, Nerea Erbiti leizarrak ere parte hartu zuen bakarlarien artean.

Bikoteen atalean, Ziaurizko Maribel Bizkai eta Iñaki Gerendiaiek eraman zuten sari nagusia; eta bigarren Aritz eta Iñigo agoitzarrak gelditu ziren. Berroetako eta Arantzako Mintxo eta Amaia eta

Leitzako Maddi eta Birginia ere aritu ziren bikoteetan.

Taldeetan, Ultzama Rock Populi izan zen onena epaiaren arabera eta bigarren Lekunberriko Gabari taldea izan zen.

Bertzelako sariak ere banatu ziren Bortatxo emanaldian. Sari berrietan, sormena ba-

loratuz, Etxarriko Amets Larrazarentzat eta Arizkurengo Garxot-entzat sariak izan ziren; kantaren berritasunari begiratuz, Izaro Saizar berastegiarrak, Hodei Baikaioa eltzaburuarrak eta Saioa Crespo tuterarrak sariak jaso zituzten. Entzulegoaren saria Estitxu Pinatxo beratarrentzat izan zen.

NEKAZARITZA

Traktoreen ITV azterketa Baztanera ailegatu da

ttipi-ttapa

Traktoreen eta nekazaritzako tresnen azterketa teknikoa (ITV) pasatzeko tailerra hila-beteotan dabil Bortziariak, Malerreka eta Baztan aldeko herrietan baina. Abenduaren 23an Amaiurren egingen da. Eguberrien ondoren, Erratzun abenduaren 27an eta Azpilkuetan abenduaren 28an izanen dira.

Heldu den urteari begira, urtarrilaren 10 eta 11n Arizkun izanen da, 12an Elizondon, 13an Lekaroz, 14an eta 17an Iruritan, 18an Zugarramurdi, 19an Gartzainen, 20an Arraiozen, 21ean Zigan, 24an Berroetan, 25ean Almandoz, 26an NARBARTEN, 27an Orabidean, 28an Oronoz eta 29n Beintza-Labaien. Otsailaren 1ean Urrotzen izanen da, 2an Oitzan, 3an Sakdian, 4an eta 7an Ituren, 8an Ezkurran, 9an eta 10ean Leitza, 11n Goizuetan, 14an Eratsunen eta 15 eta 16an Zubietan.

Alzuri

Sukalde tresnario
eta opariak
Landare eta loreak

Tfnoa: 948 630 370
BERA



Kontonberri 1, bis • BERA
Fax: Tel: 948 631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

bortziRUDI
BERA
KARTELAK
KAMISETAK
BISERAK
TRIKERAK
NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI eta DISEINU
Eztegara 26 behean
Tel: Faxa: 948 63 15 21

ZJ
Zalain
jatexea
Hostala
14 logela,
bainu eta TBrekin
Zalain 10 • Tel: 948 63 15 21
Bera - Nafarroa

BERA

Eurorik gastatu gabe erosketak egiteko aukera Altzaten

Abenduaren 29an eta 30ean Liburu Truke Azoka egingen da Kultur Etxean

Amaia eta Ainhoa

Altzateko komertziantek ekimen berezia antolatu dute abenduak. Jende aunitzek oraindik etxean pezetak badituela ikusita, abenduaren 15etik urtarrilaren 10era bitartean pezetatan erosketak egiteko aukera eman nahi dute. Horrela, edozein artikulua edo zerbitzu pezetatan ordaintzen ahal da eta dendariak kanbioak eurotan emanen dituzte. Pezetak produktuez gain, baleekin trukatu daitezke.

Ekimen honetan kafetegia, estankoa, janaridenda, ileapaindegia eta estetika zentrua, lore-denda, gozotegia, haur arropadenda, jatetxeak, kirol dendak, argazki denda, bidai agentzia, menaje eta elektragailu denda eta ostatu desberdinak parte hartzen ari dira.

Liburu Truke Azoka

Abendua literatura-ren hilabetea izaten da Beran. Ekitaldi desberdinak izan dira aurreko astetan (hitzaldiak, Gure Txokoa Ipuin Lehia-keta...) eta urteari akabera emateko, Kultur Batzordeak Liburu Truke Azoka antolatu du iaz bezala. Horrela, abenduaren 29a liburuak, ipuinak, komikiak, eta bertze irakurgaiak ekartzeko izanen da eta 30ean 17:00etatik 20:00etara kultur etxeko erakusketa gelan truke azoka garatuko da. Liburu, ipuin edo komiki bakoitzaren truke bala bat jasoko dute ekartzen dutenek eta honek bertze batengatik trukatzeko aukera eman-ko du.

Eguberriak

Dagoneko eguberriak



Areto Futboleko Gabon Kopa

Abenduaren 20ean hasi da Gabon Kopa eta urtarrilaren 4a arte luzatuko da. Joan den astelehenean hasita abenduaren 30era lehen fasea jokatu da, urtarrilaren 3an final erdiak eta finala urtarrilaren 4an. Partiduak ilunabarretan jokatu dira Toki Ona kiroldegiko aretoan. Argazkian, duela bi urteko txapelketako finalistak ageri dira.

iritsi dira eta honekin batera, hainbatekitaldi antolatzen dira herri guztietan. Duela egun batzuk nabaritzen hasi ginen gabonak heldu direla, bertzeak bertze, Berako Abesbatzaren Eguberriak Jaialdia eta Musika Eskolako Eguberriak Kontzertua izan zirelako. Egun hauetan ere, Oñetzerorako entsaioak egiten ari dira eta horrela, Oñetzeroren bixita izanen dugu abenduaren 24an. Ikastetxetako haurrak baserriar arropak jantzi eta auzoz auzo ibiliko dira gabonetako kantak abesten. Ondoren, 17:00etan Herriko Etxe-

ko Plazan elkartuko dira (eguraldi txarra eginenez gero Eztegarra pilotalekuan) denak batera kantatzeko. Ilunabarretan gazte eta helduak ere kanikatan izanen dira gabon kantak abesten. Abenduaren 31n, urte zahar egunean, "glin-glan" kantatuko dute haurrek arratsaldean eta ilunabarretan Dios-tesalbea aditzeko aukera izanen dugu urteror bezala. Urtarrilaren 5ean, Errege kabalgata iritsiko da.

Bertsu Saioa

Abenduaren 26an Kultur Etxean bertso saioa izanen da. Mano-

lo Arozenak jarriko ditu gaiak eta Sebastian Lizaso, Jon Barberena, Miren Artetxe, Xavier Silveira eta Estiñu Arozenaren bertsoak aditzeko aukera izanen da 20:00etan.

Kontribuzioa

Urtarrilaren 10era arte zabalik dago tasen eta 2004ko bigarren seihilekoaren kontribuzioaren ordain-agiriak ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordain-agiri hauek exekutibo bidez kobratuko dira, premiamendu erre-kargua, atzerapen inter-resak eta bertze gastuak gehituta.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 404 781

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

BORTZIRI
UNSION ANAIK
ERAKUSKETA
Bereau elxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdi kalea 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

BAR
Botoxo
OSTATUA
☎ 948630052-Zalain-BERA

LESAKA

Ohiko eta ez ohiko kultur ekitaldiekin akautuko da urtea

Igandean, «Erregea, soldadoa eta bufoia» antzezlanak ikusgai

Aitor AROTZENA

Abenduak kultur egitarau zabalarekin akautuko da urtea. Hilabete hasieran, abenduaren 3an, kontzertua eskaini zuen Leitzako abesbatzak. Abenduaren 11n, Pirritx eta Porrotxen «Patata patata» saio berria ikusteko modua izan zen frontoian, Otxogorrienea Guraso Elkartek antolatuta. Abenduaren 12an, igandea, Giltzarri Abesbatzak antolatuta, Mauren Rubichonek zuzentzen duen Baionako Goswing abesbatzaren kontzertua izan zen elizan. Egun berean, Arrano Elkartek antolatuta, antzerki emanaldia izan zen Arranon. Antzerkiola taldearen «Kaputen kanta» antzezlanak izan zen ikusgai.

Aitzinera begira, abenduaren 24an, nola ez, ohiko olentzero eta jaiotza txapelketa egingen da Plaza Zaharrean eguerdiko 12etan.

Abenduaren 26an, igandearekin, «Erregea,



Olentzero eta jaiotza lehiaketak ortzirale eguerdian egingen dira.

soldadoa eta bufoia» antzezlanak eskainiko du Mairu antzerki taldeak, arratsaldeko 7etan Kasinoan.

Urtezahar egunean, azkenik, Lesakako Abesbatzaren eskutik, Dios te salve kantatzeko eta aditzeko modua izanen da karrikaz karrika, arratsaldeko 6:30etatik aitzinera.

Bi lagunentzako Kubarako bidaiak zozketatuko dute herriko ostatuak Eguberri egunean

Ekitaldi berezia antolatu dute aurten herriko 13 ostatuak Eguberri egunerako. Ostatuan hartzen den trago bakoitzarekin txartel bat emanen da, bi lagunentzako Kubarako bidaiaren zozketan parte hartzeko. Zozketa goizaldeko 2etan egingen da eta saria jaso nahi duenak bertan egon beharko du. Elkarlanean ari dira herriko ostatuak eta aitzinera begira bertzelako ekitaldiak antolatzeko asmoa ere azaldu dute.

FLASH

Udal liburutegia lekuz aldatzeko dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak 30.137,38 euroko dirulaguntza eman dio Udalari, liburutegia lekuz aldatzeko. Laguntza emateko kokapen berrian zerbitzua hobetzea eta zabaltzea eskatzen zen, bertze zenbait baldintzen artean.

Ur-hornidurako tarifa berriak onartu dira

2005ean ur-horniduraren arloko ordaindu beharreko kopuruak onartu ditu Udalak. Etxeko erabilerarako lehenbiziko 40 metro kubikoen arloko 5,65 euro ordainduko dira eta oinarri hori gainditzen duen metro kubiko bakoitzaren arloko 0,24 euro gehiago. Hornidura zerbitzuaren eskuragarritasunaren arloko 2,14 euro ordainduko dira eta erabileraren arloko edo ureztatze metro kubiko 0,30 euro. Etxeko erabilerarako ur-lotura 73,77 eurotan jarri da eta industria erabilerarako 183,25 eurotan. Ur kontsumorako behin behineko lotura 35,69 eurotan jarri da eta ur-kontadore berriaren prezioa 37,07 eurotan.

IRU BIDE
Lekuz aldatzea
Tfno: 948 637 127
LESAKA

ANA
Janari idenda
Bilbia 41 • 948 637518 • LESAKA

BOEKO
Lore eta landareak
Frans auzoa • LESAKA
Tfno: 948 637826

XATURETKEA
Zahar jabetzea
Tfno: 948637027 • LESAKA

Carpintería Uranga, S.L.

- MOLDAKETA, ERREFORMA eta ERAIKUNTZA mota guztiak egiten dira.
- ATEAK eta LEIHOAK. Korredorak eta finkoak.
- ZOLAK: Tarimak eta parketak
- ALTZARIAK: Enpotratuak eta neurria eginak.

Otsango industrialdea • Tel. Faxa: 948 637715 • Mug: 696 479698 • LESAKA

ETXALAR

50 lagunetik goiti bildu zen Bai Euskarari kanpainaren herriko aurkezpenean

Eguberrietako errepresentazioa egingen dute herriko haurrek urtarrilaren 2an

Joseba eta Nerea

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea aitzinera eramaten ari den Bai Euskarari egitasmoaren barrenean Etxalarako Euskara Batzordeak aurkezpen ekitaldia antolatu zuen abenduaren 11n. Lesakan egin den aurkezpen nagusiaren atarikoa izan zen ekitaldi tiki hau eta herriko hainbat gizarte eragile bildu zituen. Denetara 50 lagunetik goiti elkartu zen herriko frontoian 19:30etatik aitzinera. Pabiku Irisarri Euskara Mankomunitadeko lehendakariordeak kanpainaren berri eman zuen eta ondotik bertsoak kantatu zituzten bildutakoek, herriko trikitilarien laguntzaz. Goian ageri den argazkia ateri eta pintxo-jatearekin akautu zen ekitaldia.

Olentzero ordubete lehenago

Arratsaldeko seietan



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Jostunen bazkaria Santa Luzia egunean

Santa Luzia egunaren aitzakian bazkari ederraren bueltan bildu ziren Bortzirietako hainbat jostun joan den abenduaren 13an. Urtero bezala euren patroiaren eguna besta egun handia izan zuten eta 25 lagun elkartu ziren Elutsa otatuan bazkaltzera. Giro ona eta umorea nagusi izan ziren, argazkian ageri den bezala.

etorriko zaigu aurten Olentzero Etxalarrera, bertze urtetan baino ordu bat lehenago. Ordu bat aitzinatu dute aurten bai meza eta bai ondoko herri kalejira. Hala ere urteroko egitarau bera mantenduko da eta mezaren ondotik herriari buelta emanen zaio bis-

tulari eta trikitilarien laguntzaz. Ondotik Elutsa ostatuan egingen da luntxa. Altxata eta Guraso Elkartek gonbidapena luzatu nahi die guraso, haur eta gazte guztiei egun honetan baserri-tarrez jauntziak ateratzeko. Urtetik urtera jende gehiago animatzen

da Olentzerori ongietorria horrela jauntzita egitera baina hala ere gehiago indartu nahi da ohitura zahar hori.

Eguberrietako errepresentazioa

Katekesian dabilzan herriko haurrek erre-presentazio berexia

prestatu dute heldu den urtarrilaren 2rako. Etxalarren inoiz ez da horrelakorik egin eta aurtien lehenbiziko aldiz 20 bat haurek Jesusen jaio-tza indikatuko dute arratsaldeko 5etan Kultur Etxean izanen den erre-presentazioan. Herriar guztiak gonbidatuak zaudete.

Txokolatada Larraburuan Errege Egunean

Urtero bezala Larraburua Erretiratuen Elkartek berendu txokolatada prestatuko du herriko haurrentzat Errege Egunerako. Arratsaldeko 5,30etan elkartuko dira haurrak Larraburuan eta betiko berrenduaren ondotik hainbat opariren zozketa egingen da. Herriko gazte-txo guztiak gonbidatuak daude arratsalde polit bat pasatzera eta suertea izanez gero errege-ak ekarritako opariez gain bertze batzuk ere etxera eramatera.

HERRIKO
OSTATU • JATEKOA

Antzuola kalea, 10 • Tel: 948 631 143
Txorri • 4810004

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

JAUNE-GOZOTEK

Alzua, 10-48530794 • HETIA

LABE-LAR

Tel: 948631076 • BERA

Borda

- ERREFORMAK
- DEMORAZIOA
- ISOLAMENDUAK
- SABAIA MODULARRAK

Pladur lanak

Tel-Fax: 948 637 546 • 600 477 277
labegor@borda.es

IGANTZI



Olentzero lehiaketa berreskuratzea erabaki da aurten

Akabila bikaina izan dute aurtengo Kultur Egunek

Oskar TXOPERENA

Olentzeroaren bestari astinaldi bat ematea erabaki dute antolatzaileek. Biltoki Elkarteak deituta bildu dira eta euren ustetan zozotu samarra dago azken urteotan Olentzeroaren besta. Egoera horri erremedioa paratu nahirik, ballabideak handitzea eta orain dela zenbait urtera arte egiten zen lehiaketa berreskuratzea erabaki dute. Horretaz gain, betiko ibilbidea zabalitzea ere komenigarria iduritu zaie eta herriko itzuliaz gain Sarrola eta Elutseta auzoetara joan dira olentzeroak. Oharrak zabaldu dituzte herri guzian barrena aur-

kezten diren olentzeroek irabazten ahal dituzten sarien berri emanez eta jendea animatuz. Ea onerako diren egindako aldaketak.

Kultur Eguneak

Aurten izan den egitaraua ikusi bertzerik ez dago orri honetan osorik jorratzeko lekuri ez daukagula jakiteko. Abenduaren 4ko arratsaldean hasi ziren haurrentzako antzerkiarekin eta poliki-poliki indarra hartzen joan ziren 8an egindako ekitaldi nagusira ailegatu arte. Jendeak orohar hagitz ongi erantzun zuen, ekitaldi bakoitzari zegokion neurrian, beti ere. Larunbateko antzerkiak,



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Biltoki Elkarateak antolatu duen Igantziko I. Gazta Lehiaketan saritutako gaztagileak ageri dira irudian, ezkerretik eskuinera: Frantxiska Apeztegia Borda zabalkoa irabazlea, Elena Retegi Argarate Garaikoa bigarrena eta M^a Paz Petrikorena Goiz Argikoa hirugarrena, euren sari eta trofeoekin. Zorionak euren eta gaztak aurkeztu dituzten baserriar guztiei. Ilunabarrean egindako enkantean lehenbiziko hiru gazta horien erdikak 135 euro ordaindu ziren.

country musika kontzertuak eta Hamabirgin eguneko bestak bildu zuten jende gehien. Lehenbizikoak eta bigarrenak ia 100na lagun bildu zuten Baratzondoko aretoan. Aipamen berezia merezi du, ordea, abenduaren 8ko bestak. Biltoki Elkarateak azken urteotan hartu duen gogo edo grianekin jarraituz gero, ziurtatua dago besta honen segida. Aurten ere ongi baino hobekiago landu dute aukeraturako gaia "Artzaintza igan-

tziarrentzat". Gai zaila zirudien aukeratu zutenean, baina gogoan ez dagoela alda-parik erakutsi ziguten Biltokikoek. Goiz-goizetik etenik gabeko ikuskizun ederra, dantza taldea eta erakusketarekin hasita. Aipamen berezia merezi duen gazta lehiaketa etorri zen ondotik, seriotasunez eta ongi antolatua. Erretorbaitan, berriz, egun guziko diapositiba emanaldia, etxe gehienetako artaldean markak eta Ameriketako izandako ar-

tziak gai hartuta. Arratsaldean, jende aunitz bildu zen Biltoki Elkartean egindako talo, gazta, txokolate eta sagardo dastaketara. Gazta irabazleen enkantearekin eman zitzaion akabila egunari.

Janari bilketa

Herriko Parrokiak oharra zabaldu du herrian aurtengo Eguberrietan ere janari bilketa eginen dela ohartaraziz. Ohiko moduan Erretorbaita behean eginen da bilketa eta gehien bat lekariak eramatea gomendatzen da (arroz, ilarra, garbantzoak...). Behar Bidasoa Elkartean arduratzen da bildutakoa behar den lekura ailegaraztea.

Agurra

Nire agurrik beroena kronika tiki hau jarraitu duten irakurle guztiei. Gaizki erranak barkatu eta ongi errandakoak kontuan eduki.

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BERRAZKUN

Makinaria erakuntza
Moldaketak eta despiezoak
Mantentimendu mekanikoa
Torre, frezadoreak, arrotifikadoreak

Igantziako Bentak • T: 948627572 • Fax: 948637313

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

Igantziako Bentak
T: 948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestak 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejesak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.

ARANTZA

Urte bukaerako ohiko eginkizunak prestatu dituzte herritarrek

Eskolako lagunek, abenduaren 15ean eta 18an antzezlanak taularatu zituzten

Nerea ALTZURI

Tenorean-tenoreko berriak eta argazkiak erakusteko hamabortzeroko herriko ataltxo honetan, eguberri ukituko egunak gainean ditugula ezin aipatzeke utzi. Olentzeroak, eguberrietako kantuak eta urtearen bukaerako egunak prest dira herrian. Urteroko legez, eskolako lagunek beuren Olentzeroak atondu dituzte, eta eskolaz kanpoko kuadrilek ere, beuren ateratzea espero dugu. Ortziralean, arratsaldeko lehen orduan, baseritarrez jauntziako taldean herriko karririk inguratuko dituzte kantu kantari. Kantuak buruan ez badira ere, partitura paperak banatzen dira eta edonork parte har dezake karrika bueltan. Soinu-

lari eta guzi, kantuan eta eskean ibiliko dira abenduaren 24an. Gero merendua egingen dute eta olentzeroak ekarritako opariak irekitzeko, eguberri egun goizera bitarte zain egon behar! Hala ere, larunbata eguerdian, mezaren ondotik, olentzeroak bizkarrean hartu eta plazaldera kalejira izanen da. Urtero bezala jokoa egin ostean, olentzeroarekin kantu bana kantatuko dute olentzeroa egin duten talde bakoitzak. Aspaldiko ohi-turari segida emanez, olentzeroak erreko dira gero. Suaren inguruan eta soinuaren laguntza korroan dantzatzeko dute. Heldu den urtarrilaren 5ean, aspaldiko urteetan bezala, erregen kabalgata izanen da herrian.



ARGAZKIA: JORDI OLAGARAI

Bertze aldi batez, Amaia Telletxea aranztarra Nafarroako euskal kantu txapelketaren finalean ikusi genuen. Oraingo honetan, Fermintxo Gartxitorena berroetarra izan du lagun kantuan. Oskar Estanga gitarjolearekin, Amaia eta Mintxo bikoteak "Herensugea eta Gaston" izeneko kantu herrikoia kantatu zuen. Xabier Amuriza bertsolariaren hitzak ditu haur kantuak. Mutiloa Goitin eginiko kanporaketaren ostean, Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan egin zen finalean parte hartu zuten azaroaren 27an. Zorionak!

Antzezlanak eskolan

Joan den alean aintzinatu bezala, aurten ere, eskolako haurrek jendaurrean antzezlanak erakutsi dituzte. Abenduaren 15ean eta 18an izan ziren emanaldiak. Hasiera batean, igandearekin egitekoa bazuten ere bigarren emanaldia, bertze arrazoi batzuk tarteko, larunbat arratsaldera pasatu zuten jarduna. Etxalar eta Igantziko lagunen aitzinean asteazkenarekin egin zuten



ARGAZKIA: TITIVITAKA TB

Haurren antzerki emanaldiaren irudi iragarria.

emanaldia. Gustora egon ziren egun batean eta bertzean hurbildutako ikusentzuleak.

Dozenaka urteko ibilbidea badu herriko antzerkigintzak eta iraun dezala!

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerdik ostiralera: 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenerdik 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bidea 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI S.L., Tfnoa: 948 133328 Faxa: 948 133713
Non: La Viña kanika, 4-behea • 31600 BURLATA
pabai@artekari.com

Langile Autonomoak
Nekazariek eta merkatariak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-kontratuaren laguntza
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Enpresa adospenak
Ezberdintasun eta jokoaren espedienteak
Bideragaitasun planak eta auzunkortak



**ALBERGIA
JATETXEA**

948 634179
ARANTZA



J. RAMOS

zolak akutzilatu eta
barnizatzen ditut

Tfnoa: 948 631 343 BERRA - Tfnoa: 948 637 173 LESAKA

MALERREKA

Doneztebe Futbol Taldea

abenduaren 18an aurkeztu zen

Malerrekako 38 hurrek fitxa daukate talde berriarekin

ttipi-ttapa

Ekainaren 26an sortu zen ofizialki Doneztebe futbol taldea: estatutuak onartu ziren eta lehenengo zuzendari-tza batzordea osatu zen. Irailaren 17an hasi ziren entrenatzen benjamin eta alebin mailako 38 haur Doneztebeko kiroldegian eta gaur egun Lesakako futbol-7 txapelketan ari dira jokatzeko. Dena den, taldearen aurkezpen ofiziala larunbat honetan, abenduaren 18an, egin da Donezteben. Futbol talde hau sortu dutenen helburua bikoitza da. Alde batetik, oinarri batzuk sortu nahi dituzte «Doneztebe eta Malerrekako hurrek gure herrian entrenatu ahal izateko, astean aunitz al-diz Lesakara joan beharrean, 44 kilometroko bueltak egin gabe». Bertze aldetik, gaur egun dagoen gabezia kontuan hartuz, etorkizun hurbilean belar artifizialeko futbol zelaia lortu nahi dute Donez-



UTZONKO ARGAZKIA

Metro koadro batean zortzi ondoko

Ezkerretik eskuinera Felix Mari Mari Elizalde eta M^a Teresa Eskudero senar-emazte eratsundarrak eta Migel Mari Urrutia saldiastarra ageri dira. Saldiasko mendietara ibilaldia egitera joan zirenean sorpresa atsegina izan zuten: metro koadro batean ia kiloko bateko hiru ondoko eta beste bost ondoko txikia-koak aurkitu zituzten.

teben, bertan partiduak jokatu ahal izateko. Izan ere, «Doneztebe izaneri da Nafarroa osoan 1.700 biztanlerekin futbol zelairik ez duen herri bakarra».

Urtetik urtera, gero eta haur gehiagok eskatu diete gurasoei Lesakara eramatea, entrenatzera eta jokatzera. 2002-03 denboraldian Doneztebeko 24 jo-

kalaria ari ziren Beti Gazten kategoria ezberdinetan; 2003-04 denboraldian 31, eta aurtengo denboraldian 56, horietatik 38 Doneztebe futbol taldean.

SUNBILLA

Ulibeltzak

elkartean bertso-afaria izanen da ilbeltzaren 8an

ttipi-ttapa

Sunbillako Ulibeltzak elkarteak antolatuta, Euskadiko Kuxaren «Luberri: bertso lurra berritzen» kanpainaren barnean bertso-afaria egingen da urtarilaren 8an, larunbatarekin, 21:30etatik aitzinera Ulibeltzak elkarteak. Lehenik afaria izanen dute, honako menu honekin: arrain zopa, legatza saltsa, txuleta, postrea, kafea, kopa eta purua. Txartelak 25 eurotan salgai izanen dira urtarilaren 2a bitarte, Marisol janari-dendan, Iturburu ostatuan, Fonda ostatuan eta Maria Jesus harategian. Bertso arloari dagokionez, Angel Mari Peñagarikano, Amets Arzallus, Xabier Silveira eta Estiburo Arozena ariko dira. Patxi Larretxea gai jartzailearen erranetara.

616 513 491

Pitti

ESKABAZIOAK

C/Amatza,1

32010 DONEZTEBE (NAFARRA)

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA

MOSKITERAK, PERTSIANAK MOTORIZATUAK

VERECIANAK... PVCzko LEIHO ETA ITXITURAK

BELARRA

OSTATUA

JATETXEA

Ametia karrika

DONEZTEBE

Tfnor: 948 45 03 06

LANA

Fernando Trueba langilea gose greban egon da Zalaingo lantegian

Abenduaren 2an hasi zuen ekimena eta 13an anbulatzian atera zuten

ttipi-Itapa

Aceraliak Zalainen duen lantegiko Fernando Trueba langilea abenduaren 2an sindikatuen bulegoan sartu eta gose-greban hasi zen. Erabaki larrieta gogor hau prozesu luze baten ondorioa izan da, langile honen alde sortu den herriko plataformaren erranetan: «Gatazka, enpresako kargoduna den Jose Caballerok izandako jokararen ondorioz sortu zen». Fernando Truebak hainbat urte eman ditu osasun arazoekin eta azkenean lanpostuz aldatzea lortu zuen. Plataformaren arabera, «abuztu bukaeran Caballerok bertze lan motak egitea agindu zion Fernandori. Langileak ezetza eman zion bere osasunerako ondorio kaltegarriak eta lanpostutik aparteko lanak zirela. Segidan Caballerok salaketa jarri zion enpresako zuzendaritzan, eta ondorioz, zazpi eguneko zigorra ezarri zioten langileari, lan eta soldatarik gabe». Fernando Truebak lantegian sartzea eta mugagabeko gose-greban hastea erabaki zuen, zigorra kentzea eta espedienterik ez idokitzea aldarrikatuz.

Gose-grebarekin batera, herriko plataforma sortu zen, komunikabideetan arazo honen berri emateko, bizilagun eta langileen elkartasun



Herriko Plataformak lantegi aitzinean egin duen konzentrazioetako bat. behetian, Fernando Trueba, anbulantziara sartu eta lantegitik atera zutenean.

na lortu asmoz karrikan informazioa emateko eta egunero bildu, balorazioa egin eta hurrengo ekimenak antolatzeke. Honela, abenduaren 5ean Donezteben konzentrazioa egin zuten, "Langileen esku-bideen alde, lan erasorik ez" lelopean. Abenduaren 8an lantegiko atarian, langileei egoeraren berri eman zitzaizen pankarta baten bidez eta abenduaren 11n "Eltzezarata" antolatu zuten lantegi atarian.

Abenduaren 13an medikuarengana joan zen Fernando Trueba bere egoera fisikoa baloratzeko. Txostenean lan egiteko gauza ez zela jakinarazi zuen medikuak eta Fernandok bere gose-greban segitu zuen. Pertsonal-buruzagiak anbulantziabatean ospitalera bidali



tzeko erabakia hartu zuen, nahiz eta fisikoki behar ez izan. Plataformaren ustez, «argi dago gainetik kentzeko modu bat izan dela langilearen erabakiaren kontrarekin. Beraz, a-

tzakia honekin lantegitik atera arazi egin dute langilea».

Egoera honen aitzinean, herriko plataformak enpresaren, langileen eta sindikatuen jarraitzaileak du.

Obretako garabien karneta ateratzeko ikastaroa UGTren esku

ttipi-Itapa

Obretako garabi edo gruak gidatzen dituzten langileek ziurtagiri edo karneta behar dute. Baztan-Bidasako UGTk ziurtagiri hori Iruñera mugitu beharrik gabe lortzeko aukera eskaini nahi du eta inguru honetan garabia maneijatzeko ikastaroa antolatu nahi du. Ikastaro honekin, Nafarroako Gobernuako Industria Departamentuak karneta ateratzeko egiten duen azterketara aurkezteko prestatzen da langilea. Ikastaroak 60 teoria-ordu eta 15 praktikoak, nahitaez egin beharrekoak, izanen ditu. Izen emateko honako agiriak behar dira: Guttienetz urtebeteko esperientzia duela erakusten duen enpresa ziurtagiria. Enpresa ezberdinetakoak ere izaten ahal dira, baina guztien artean guttienez urtebete osatu behar dute. Horretaz gain, Nortasun agiriaren fotokopia, lan bizitzaren informea, karneteko bi argazki eta mediku errekonozimendua behar dira. Ikastaroan eraikuntzako langileek hartuko dute parte. Informazio gehiagorako Patxi Altubarekin harremanetan jarri behar da, 646 024024 telefonoan.

Zure hirirako hoberena
burutik beheraino.

Teknia
CORPORAE

Teknia Corporae-k zure Osasunerako, Edertasunerako eta Ongizaterako dituen zerbitzu guztiak Teknia Mediki Zentroko profesionalak zuzentzen dituzte. Tratamenduetan, azken belaunaldiako tresneria erabiltzen da: presoterapia, elektroestimulazioa, vacuumterapia, etab. Lehenengo bisita medikuari, doan, eta jarraipena aukeran, tratamenduak irauten duen bitartean.

AURPEGI-TRATAMENDUAK

- KABIAR tratamendua.
- ANTI-AGING tratamendua.
- A bitaminaren tratamendua.
- Garbitze eta hidratatze tratamendua.
- Birsendotze-tratamendua.
- Larmintzaren garbiketa.

GORPUTZ-TRATAMENDUAK

- Zelulitisaren aurkako tratamendua.
- Birsendotze-tratamendua.
- Hanka nekatuen tratamendua.
- Birmoldatze-tratamendua.
- Estresaren aurkako tratamendua.

BESTE ZENBAIT ZERBITZU

- Eguzkirik gabeko brontzeatzea, Autobrontzeatzea.
- Permanentea eta betileak tindatzea.
- Manikura eta pedikura.
- Depilazioa: Ezko beroa eta hotza.

✿ Etsa ezarri zure tratamendurako botua 2005ko urtarrilaren 31 baino lehen eta %10eko beharapena izango duzu.

Teknia
CORPORAE

IRUNGO BIHOTZELAN.

Juan de la Cruz, 3 (SAC/HAZen ondoan) - 20002 - Irun - Tel: 943 660 150 - info@tekniacm.com - www.tekniacm.com



Elkarrizketa Begoña Yoldiri
eta Ainhoa Domínguez,
Teknia Medikuzentzoko
Zuzendaritza Taldea.

Teknia
CENTRO MEDICO
+

Zer da, zehazki, Teknia Medikuzentzua?

Definitu dezakegu mediku-asistentziaren integrala dela mediku- eta kirurgia-espezialitate ia guztiei erantzuten diena; eta, guztira, medikuen arreta osatzeko diagnosi-probak egiten dituzte, eta radiologia, ekografia, mamografia, densitometria, ortopantomografia, etab.

Zergatik Iruten?

Irun populazio nukleo garrantzitsua da eta erreferentzi gunea ere bai ondoko herrietarako. Aspaldi honetan gertatzen ari den ekonomia garapenak aukera eman digu zentro bat eskaintzeko, eta kokapenari, mediku-taldeari eta azken teknologiari esker Gipuzkoako zentro onenetarikoa gainera.

Zein abantaila eskaintzen dizkio Zentro berri honek eskualdeari?

Tratu pertsonalizatuaz gain, gertutasuna ere eskaintzen dugu, eta prezioak ere oso arazoizkoak dira; eta garrantzitsuenak: zerbitzu azkarra eskaintzen dugu, beste herrietara joan beharrik ere ez baitago.

Zer zerbitzu eskaintzen ditu Zentroak?

Bi barrutitan lan egiten dugu: Teknia Medikuzentzuan eta Teknia Corporaen.

Zer da Teknia Corpora?

Osasun, Edertasun eta Ongizate Unitatea da, eta han, aurpegi- eta gorputz-tratamenduak eskaintzen ditugu, azken belaunaldiko tresneria eta goi-kosmetikako produktuak erabiliz (lapiarra, retinola, A Bitamina etab.), betiere medikuen aholkuen eta kontrolen baitan.

Zahartzearen aurkako tratamendua ere badugu, Gipuzkoan bakarra dena, ikerketa alemaniarreko KLAPP-en "REPAGEN" delakoa, hain zuzen. Hiru saiotan egiten da, masajeko teknika berezi baten bidez.

Zer esango zenuke Zentroko mediku-taldeari buruz?

Benetan, mediku-talde garrantzitsua dugu. Guztiek eskarmentu handia dute eta oso motibatuta daude proiektu honekin. Hain profesionala den talde hori esker, ia espezialitate guztiei erantzun diezakegu: Medikuntza Orokorra, Digestio Aparatua, Kardiologia, Kirurgia Orokorra eta Baskularra, Dermatologia, Ginekologia, Oftalmologia, Odontologia, Pediatria... Azken batean, praktikoki gaixo batek behar duen guztia. Eta berrikitzen aldetik, barizeen tratamenduan azken teknikak erabiltzen ditugu, mediku-azterketa pertsonalizatuak egiten, minaren tratamenduak ere baditugu, eta vértigo- eta oreka-arazoetarako unitatea ere bai.

Bukatzeko, aholkurik baduzu irakurleei emateko?

Bai, medikuntzaren aldetik, oso garrantzitsua da gure gorputza aztertzeko eta prebenitzeko kontzientzia izatea; eta estetikaren aldetik, gaiteratik azala zaindu eta bizimodu osasungarria eginez gero, zahartze azkarra saihestuko duzu. Eta, jakina, zuen esanetara gaude edozein zalantza argitzeko edo informazio gehiago emateko, konpromisorik gabe.

IRUNGO BIHOTZEAN:

Juan de la Cruz, 5
(SAC/HAZEN ondoan) - 20302 - Irun
info@tekniam.com - www.tekniam.com
Tel.: 943 660 150

Teknia
CENTRO MEDICO
+

Osasuna

osasun gida • osasun gida • osasun gida

>>>> Optikak
>>>> Hartz klinikak
>>>> Naturopatak
>>>> Fisioterapeutak



Albisuhortz klinika

Iker Albisu Altolagirre

Odontologia Medikua - Kol. Zita 449

☎ 948 631 631

Iparraidea 3 - 2. ezk 31780 Bera

Clinica Dental

Irurita - Rubio

ODONTOLOGIA

ORTODONTZIA

Doneztebe 948 450 267
Rosa Seminario, 19-1 Esk

Dr. Jose Luis Irurita (Kol.242)

Dra. Biotza Rubio (Kol.241)

odontologia medikuak

Rx panoramikoak - periodontzia - kirurgia

endodontzia - protesak

ODONTOPEDIATRIA - PADI

ortopedia maxilarra - umeak eta helduak

Leitza 948 610 713
Manuel Lasarte, 7-2 Esk

**FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO
ZENTROA**

**Karlos
Alzugaray**
FISIOTERAPEUTA

- Lan isuripuek
- Trafika isuripuek
- Kirol lesioak
- Gihar, artikulazio... minak
- Birkortze arloak
- Bertze tratamenduak
- Masajeak.
- Itxaz etxeko laguntza.

Itza, 20 • BERA
Tfn: 948 63 01 87
Mugikorra: 607 85 32 08



FISIOETXEA

Ane Egizabal Llata

FISIOTERAPEUTA

- Errehabilitazioa
- Osteopatia
- Kirol eta zirkulazio Masaia
- Erditze aurreko/ondorengo tratamendua
- Etkez etxeko laguntza
- Mutuak
- Aseguruak
- Partikularrak

Huete Gozua 8, 3.C • LEITZA • Tfn: 948 510 730

**MASAIA eta
BIZKORTZE ARIKETAK**

Txomin IRAZOKI
Fisioterapeuta

Eztegara, 24 • BERA
Parrokia, 5 • DONEZTEBE
Tfn: 670 471 200



**Ostargi
Optika**

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Ikusmen azterketa orokorrak
- Lentillen adaptazioa
- Begietako tentsioaren kontrola
- Ikusmen terapiak
- 2-3 urtetatik aurrera haurren errebisioa

Bidasoa 8 • BERA • Tfn: 948 630 753

**MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA**

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

Diabetes • Asma • Zizareak • Larri azaleko alergia
Buruko mina • Oinaren izerdia • Prostata, etab...

**IKUSMENAREN
BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista albertua
- Estrobismoa
- Begi lau-soak-kataraktak

**GIHARRE
ARAZOAK**

- Birkortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, lumbalgia
- Bihurdurak, etab

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldean 2-7etara. Ordutegia eskatu

☎ 943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

Osasuna

osasun gida • osasun gida • osasun gida

**Zure publizitatea
Osasun Gidan
hilabeteetan behin
deitu**

948 63 54 58
telefonora

kulturkari@ttipi.net

BERTIZ

Bertizko Turismo zentroko denda urte batez hartzeko lehiaketa deialdia egin da

Proposamenak abenduaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira

ttipi-ttapa

Heldu den urtean, 2005eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra Bertizko Turismo Zentroko instalazioen barnean artisau erakusketak denda kudeatzeko lehiaketa deialdia egin du Turismo Partzuegoak. Eskaintzak Bertizko Turismo Partzuegora (Bertizko Turismo Zentroa, 31720 Oieragi) bidali behar dira abenduaren 30 (ortzeguna), 14:00ak baino lehen. Eskaintza ekonomikoak 1.500 eurokoa izan beharko du gutxienez, egin nahi den akititate planarekin batera. Pertsona fisikoek Nortasun Agiriaren fotokopia ere aurkeztu beharko dute eta pertsona juridikoek konstituzio eskriturak eta si-



Turismo zentroaren ondoan dagoen denda urtebeterako emanen da.

natzen duen pertsonaren podereak.

Esleipena urtebeterako baldin bada ere, denbora hau akitu baino lehen eta beti ere bi

alderdiak ados egonez gero, alokairu kontratu hau urte baterako edo birako luzatzen ahal da. Horretarako, alokairu epea bete baino bi hila-

bete lehenago, 2005eko urriaren 31rako, adjudikatzaileak Bertizko Partzuegoari jakinarazi beharko dio urte baterako edo birako kontratua lu-

zatu nahi duen edo ez.

Adjudikatarioak Bertizko Turismo Zentroan kokatua dagoen 26 metro koadroko lekua erabiliko du. Leku hau Bertizko Turismo Partzuegoko materiala eta artisau produktuen erakusketa eta salmentarako erabiltzen ahal du. Modu berean, artisau elkartek nahi badu, artisauen erakusketak ere egin daitezke, baina adjudikatzaileak ezin dezake bertze lan komertzialik burutu leku horretan.

Artisau dendaz arduratzeko lan kontratua adjudikatzailearen eskutik izanen denez, ez da inolako lan harremanik egonen Bertizko Turismo Partzuegoa eta pertsona hauen artean.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

DONEZTEBE

Erreka elkarteak alde batera utziko ditu ez ohiko ekitaldiak

Zuzendaritzak kargua utziko du Udalak erabakia aldatzen ez badu

ttipi-ttapa

Doneztebeko Udalak kirol instalazioen ordainketaren inguruan hartu duen erabakiaz eztabaidatzeko ez ohiko batzar orokorra egin du Erreka kirol elkarteak, La Union Kasinoan. Bertan, zuzendaritza batzordeak gai honen aitzinean duen jarrera bozkatu da. Hain zuzen, Errekako zuzendaritza batzordeak bere desostasun osoa azaldu du udalak hartutako neurrien aitzinean. Modu berean, lehiaketan dauden jarduerekin segituko dute, eskubaloitalde ezberdinen ligarekin edo pilota txapelketetan, errate baterako, baina urtean egiten diren ez ohiko bertze ekitaldi guztiak, herri laisterketa, udako kirol eskola, futbito, fronte-



Santa Luzia eguna ospatu zen abenduaren 13an. Aurtengoan Pakita Andiarrena jostunak jaso ditu omenaldia eta Urrezko Titarea.

nis, pala edo Mendia-
ren Eguna alde batera
utziko dute.

Erabaki hau aurtengo denboraldirako izanen da eta Udalak, hartutako erabakiarekin ai-

tzinera segituz gero, Zuzendaritza Batzordeak bere kargua utziko du.

Hau izan zen zuzendaritza batzordearen proposamena eta ondorengo bozkatu zena. Boz-

ketan 74 lagunek hartu zuten parte eta horietatik 73 pertsonak zuzendaritzaren jarrerarekin bat egin zuten eta batek bere kontrako boza eman du.

Agorretako ikasleen arrakasta Arrasateko Akordeoi Lehiaketan

ttipi-ttapa

Arrasateko Akordeoi Lehiaketan Doneztebeko Agorreta Musika Eskolako zenbait ikaslek parte hartu zuten eta aurtengoz, iaz bezala, Varieté junior mailan Doneztebeko Amaia Iraolak irabazi zuen eta Labaiengo Iñigo Estanga bigarren suertatu zen. Hirugarren postuan Berako Estibx Pinatxo geratu zen. Iaz lehiaketa hau irabazteak ETBko programa batean parte hartzeko aukera eman zion Amaia-ri, hainbat musikari handirekin batera. Bertze maila batzuetan ere aritu ziren Agorreta eskolako ikasleak. Asier Otxandorena doneztebarrak eta Urrozko Jon Elizondok Urrezko domina irabazi zuten, Donamariako Naiara Aizpuruk zilarrezkoa eta Miren Sein iturendarrak bronzetazkoa.

GAZTANDEGIA

LIZUN Etxeko Ardi Gazta

Petxetikoborda • Tfno: 948 450 862 • SUNBILLA

gaztelu scl

iturgintza

kalefakzioa • saneamendua • gasa

948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeke
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

BIDASOA

arkitektura bulegoa

Bititio, 45 • 948 637 503 • **LESAKA**



Landibar

ZENTRO KOMERTZIALA

© Dantxarinea (0034) 948 599 400

DANTXARINEAKO
Landibar
IBARDINGO
Venta Peio eta
BEHOBIAKO
Marionnaud-en

USAIN GOXOEN TXOKOA
aurkituko duzu.
markarik ezagunenetan
aukera zabala.

Zatoz eta ikusi!

ROCHAS
CHRISTIAN DIOR
BIOTHERM
CLARINS
CHANEL
YVES SAINT LAURENT
GUERLAN
PACO RABANNE
THIERRY MUGLER
ARMANI

...



© Behobia (0034) 943 631011

M^a Juncal Labandibar karrika, 13B

VENTA PEIO

© Ibardin (0034) 948 630 719



*Euskal Herriko
preziorik
hoberenak*

Eguberri eta egun
berezi hauetan
gustoko opariak egin
eta jasotzeko.



Ameztia

• Ostala • Jatetxea • Ostatura

Tfnoa: 948 450 028 • DONEZTEBE

Moldaketa lanak direla eta
itxia egonen da
urtarrilaren 9tik aitzinera

Ostatua

Bokatak eta pintxoak
Bokatak eramateko
948 450028



**Asteburuetan etorri zaitez
bokatak eta pintxoak dastatzera**

TB digitalean futbol partiduak ikusten dituzun bitartean!!
Larunbatetan izugarrizko martxa izanen duzu!!

**Ameztiako langileok
eskerrak
eman nahi dizkiegu
bezero guziei gurera
etortzeagatik.**
Zorionak eta
Urte Berri On!

**Abenduaren 24ko
afariaren
aitzinetik kaba
kopa bat eskainiko
zaie Ameztia**
bezeroei.



URTE ZAHARREKO AFARIAK

- *Urdai azpiko iberiarra*
- *Foie-pate* (patsen ogiarchin eta sagar purcarchin)
- *Langostinoak labean* (zurituak eta brandygan flambatuak)
- *Garaiko kardoak almendra xigortuekin*
- *Isas-zapoa almejekin*
- *Azpixuna Idiazabalko gazta-kremarekin*
- *Sagar errearen izozkia*
- *Gran Feudo Crianza Ardo beltza*
eta Bodegas Chiviteko ardo gorria
- *Codorniu Cava, Kafea, kopa eta puroa*
- *Zoriontasun mahatsak eta sorpresazko poltsa*

Prezioa: **57 e** B.E.Z a barne

Erreserbak egiteko deitu: **948 45 19 02 • 948 45 00 28**

Eguberrietan zatoz gure dendetara!



Mari Enk
LENCERIA

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON

DONEZTEBE Parrokia, 11 • 948 45 01 12
ELIZONDO Jaime Urrutia, 43 • 948 58 13 01



IPARLA
kirolak

Mendiko materiala
erol oinetakoak
mandakak

Santiago, 51 • ELIZONDO
948 580 585



ALBERTO
CLASSIC & SPORTWEAR
1983

CAMELO	ARMANI JEANS
GENFINS	CALVIN KLEIN
DOCKERS	REPLAY
ZONE	DIESEL
BELSTAFF	LIBERTO
BARBOUR	SCOTCH & SODA
TIMBERLAND	REDSKINS

EGUBERRIETAKO OPARIK ONENA

Eguberri eta Urte Berri on!

Hondarbia k. 6 - Tel-Fax: 943 615015
BILBO



Tbarrola
Haurrendako arropa
0-14 urte

Parrokia 6 • DONEZTEBE • 948 450 463




Ikuilu
ostatua.bera

XARETA
OSTATUA
DANTXARINEA

Ikuitu eta Xareta ostatuek zorionak eta urteberrion opa dizkizue

ESKERRIK ASKO

PINTXOAK BOKATAK



GURIA

- Lurrindenda
- Drogeria
- Opariak
- Pinturak

Altzate 33 • BERA • 948 630388



Azalea

Uste Berri On!

Altzate 32 • 948 631 121 • BERA



CASA OSTIZ

ZAPATADENDA
PAPERTEGIA
ESTANKOA

Gizaseme,
emakume eta
haurrendako
oinetako
aukera zabala

zorionak eta urte berri on!!

Tel eta Fax: 948 450 289
e-posta: costiz@telefonos.es
Parrokia 17 • DONEZTEBE



Malkorra

GOZOTEGIA
URREKIN EGINA
ETXEKO TURROIA
ETA MAZAPANAK

948 580 061
ELIZONDO

EGUBERRI HAUETAN ZURE EROSKETAK... LESAKAN

EGUBERRI HAUETAN

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

ORDUTEGIA:
 Astrolabearik artifiziala: 7:30-13:00
 17:00-20:00
 Lurazkoak: 8:10-13:00
 Igande eta beste egunak: 8:30-12:30

24, 31 arratsalde
 25, 1 egun oso itxia
 Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA



- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

Albistur, 39-K • Tfnoa: 948627542 • LESAKA

Este
 He

ANTX

Albistur 39, 317
 Tfnoa: 948 6

MARIAN MENDIBERRI ORKIN

- Lurrindenda
 Estetika
 Opariak
 Bitxiak
- Depilazio arrunta
 - Elektrikoa
 - Kutis garbiketa
 - Manikura
 - Makilaia
 - Mikropigmentazioa
 - Masajeak eta abar...
 - PUNTAKO ESTETIKA
 - PRODUKTUAK
 - SALGAI

Behoko plaza 10 • LESAKA • Tfnoa: 948 637 721



Janzkera
 Lentzeria
 Etxebarnea

Plaza Zaharra, 14 • LESAKA • Tfnoa: 948 637 721



Zorionak eta Urte Berri On!!

Deñe

- Lentzeria
- Mertzeria

Beheko plaza 10 • LESAKA • Tfnoa: 948 627 514

muebles
ORDOKI
 altzariak

Plaza Zaharra 27, 31770 LESAKA
 Tfnoa: 948 637 780 • 667 605 224 Fax: 948 637 780

OSI
 Jantzi
 Bitxi

Albistur, 3-berea • LESAKA

EGUBERRI HAUETAN ZURE EROSKETAK... LESAKAN

AN ZURE EROSKETAK...

tika Zentroa
apaindegia

ORDOKI
AHIZPAK

70 LESAKA
3 77 03



txinelka
ZAPATADENDA
• Osagarriak
• Konponketak
Larunbat
arratsaldetan irekia
Arretxea 20, beheko • LESAKA • Tfnoa: 948 637 594

LE SA KAN



- 01_ Txirula
- 02_ Ant xordoki ileapaindegia
- 03_ Legarra
- 04_ Osi a
- 05_ Kaxerna elektragailuak
- 06_ Txinelka
- 07_ Marian Mendiberri
- 08_ Comercial Maria Jesus
- 09_ Ordoki
- 10_ Telletxea argazkidea
- 11_ Goiz argi
- 12_ Sorgin Xulo
- 13_ De e



TELLETXEA

argazkiak

EGUBERRIETAKO ARTIKULU ETA OPARIAK
Puzleak, liburuak, CDak, haurrentzako DVDak

KAMARA DIGITALAK, ALBUMAK

EHIZARAKO ARROPA ETA ARTIKULUAK
Aigle, Bestard, Tuckland

ESTUDIOKO ETA KARNET ARGAZKIAK

Plaza Zaharra, 6 • LESAKA • 948 637 281

Comercial Maria Jesus



Handienegia
Opazteko gauzak
Jintuna • Sektoreko tresneria
Baserako arropa • Oinetakarak
MARI JE
J.C. CHOPERENA
Tfno. 214 82396
Plaza Zaharra, 28 • LESAKA • 948 637 105 / 948 637 220



TXINELKA
ZAPATADENDA
Tfnoa: 948 637 594

SORGIN-XULO

- 34tik 70 taila bitarte
- Janzteko arropak edo informalak, bitxiak...
- Neska, mutil, emakume eto haurdunentzat

Plaza Zaharra 4 • LESAKA • Tel. 948 638032

KAXERNA

Javier Eneterreaga



Zarandia, 3 • LESAKA • 948 637 070 / 607 946 191

ELEKTRAGAILUAK

SAKAN



www.amma.es



Haiekin arduratzen gara gau ta egun

Amma Betelu, Betelun (Araiz-Betelu), adineko pertsonek bertan erosotasun osoz bizitzeko beharrezkoa den guztiarekin hornitua dago. 20 laguneko talde profesional kualifikatuko bat, eta arreta pertsonala eta banakakoa, gure erabiltzaileek nahiz bere senideek bizi-kalitatea eta lasaitasuna lor dezaten.

BIZITEGI ZERBITZUAK: 45 plaza • EGUNEKO ZENTROA: 8 plaza • ERREHABILITAZIOA • OKUPAZIOZKO TERAPIA ETA EKINTZA-PROGRAMA • ETXEKO ARRETA • KANPO-KONSULTAK • TELEASISTENTZIA • PODOLOGIA • TARIFAK 985 EUROTIK AURRERA



Amma Recursos Asistenciales, sortutako eta kudeatutako proiektua, kalitatearen kudeaketarako ISO 9001:2000 ziurtagiria jaso duen enpresa.

Amma Gizarte Baliabideen Zentroa, Sektorean Brontzezko Seilua jaso duen lehen enpresa. Europako Kalitatezko Aitortze.

Argibideak eta leku erreserbak: 948 513 322



amma betelu gerontologia zentroa

AMMA MUTILVA | AMMA IBAÑETA, Erro | AMMA OBLATAS | AMMA ARGARAY | AMMA EL PINAR, Chillarón, Cuenca | AMMA TEIÁ, Barcelona | AMMA ARGANZUELA y AMMA COLMENAR, Madrid

ERREPIDEAK

Doneztebe eta Leitza arteko bidea moldatzeko 4,27 milioi euro

Lana ez da 2009. urtea baino lehen eginen




ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Herrilan Departamenduak 4,27 milioi euroko inbertsioa egingen du Doneztebe eta Leitza lotzen dituen NA-170 errepidea hobetzen. Lan hau, 2002 eta 2009 urteen artean egitekoa den Errepideetako Plan Zuzentzailearen barnean sartua dago. Duela bi urte errepide honen zati bat moldatu zen Zubieta eta Labaiengo Lotzabian auzoen artean, bi kilometro terdi eskas, baina oraindik orain zaila eta arriskutsua da bide hori. Departamentuko datuen arabera, egunero 800 ibilgailu igarotzen dira errepide honetatik eta %4a kamioiak edo autobusak dira. Erabiltzaileen ustez, errepidea egoera penagarrian dago, estua eta bidebaterrik gabekoa da eta zati handi batean, mendiaren eta Ezkurra errekaen artean itoa gelditzen da. Elgorriaga, Ituren eta Ezkurra herriguneri erdi-erdi pasatzerakoan ere, batzuetan etxeetako ateen ondotik, arrisku egoerak sortzen dira.

Beraz, Eusko Alkartasunak Nafarroako Parlamentuan egindako galderari Alvaro Miranda Herrilan Departamentuko kontseilariak emandako erantzunaren arabera, errepide osoan 6 edo 7 metro zabalerako galtzada egin nahi da, baina lanak ez dira 2009a baino lehen akituko.

DEPOSITO PODIUM

Errentagarritasuna eta likidezia mailarik altuenean



Goranzko Aurrezkia + Inbertsio Fondoak

- Erabilgarria edozein momentutan inolako kosturik gabe.
- Interesen ordainketa seihileroko.
- Gehieneko epea: 3 urte.
- T.A.E.: % 3,02koa, Goranzko Aurrezkia eta Inbertsio Fondoaren artean erdibana egindako inbertsioarentzat kalkulatu.
- Posible da banatzea %70a Goranzko Aurrezkia eta %30a Inbertsio Fondoaren artean.

- Maltasun osoa: dugun Fondo aukera zabaleraren artean zuk aukeratzen duzu nahi duzun Inbertsio Fondoak.
- Epea: 3 urte.

Egunero hobekiago egitearen erronka

www.ruralvia.com



NAFARROAKO
RURAL KUTXA

*Upper Santa-Cecilia Bici Cooperativa, 2008ko Finde Mirene Espainiako Bankaren Aurrezki
Eskaintza berria: Inbertsio Fondoak aukeratu duzun kopuru berdinean Inbertsio berria duzun
Nafar Kutxa duzun aurrezki gabeziak kopuru berri. Inbertsioak jarduera berria eta kalitate dira.

ERREPIDEAK

N121A errepidearen Gipuzkoako zatiaren lanak eman dira

Nafarroako Gobernuak gauza bera egin dezala eskatu du PNVko Etxegaraik Parlamentuan

ttipi-ttapa

Gipuzkoako Diputazioak Sener enpresari eman dio N121A errepidean, Behobiatik Endarlatsa bitarteko zati-ko proiektuaren erre-dakzio lana. Enpresa honek 697.500 euroko aurrekontua aurkeztu du, hasierako aurrekontua baino %7 guttiago eta 18 hilabeteko

epea izanen du proiektua idazteko.

Nafarroako Parla-mentuan EAJ-PNVko ordezkaria den Jose Luis Etxegaraibegi onez ikusten du erabaki hau, baina Nafarroako zatian egin beharreko lanak lehenbailehen ematea es-
katu du: «Egia da urte aunitzetako eskari ne-
goziazioen ondotik Gi-
puzkoako Diputazioa-
ren eta Nafarroako Go-
bernuaren arteko akor-
dio batera ailegatu gi-
nela, baina egia da mo-
du berean, foru admi-
nistrazioa oraindik ez
dela proiektuen adjudi-
kazioan hasi. Horrega-
tik, N121A errepidearen
moldaketa berriz ere gi-
beleratuko dela beldur
gara». Badirudi Gober-
nuak moldaketa lanak
nondik hasi zailantza
duela, Igantzi-Bera za-
titik edo Bera-Endarla-
tsa zatitik.



Trafiko pilaketak ahal den neurrian saihesteko Nafarroako zatia nondik hasi aztertzen ari omen da Nafarroako Gobernuak.

TELLETXEAK URTE BERRI ZORIONTSUA OPA DIZUE



MUEBLES
Telletxea

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 948 450 258 DONEZTEBE

GOIZUETA



Antolatzaileak pozik feri berrituari herritarrek emandako erantzunarekin

San Andres eguna ospatu zuten eskolan

Esteban AROTZENA

Azaroko azkeneko larunbatak gorritz seinatu beharko dira gure herriko kalendarioetan. Aurtengoa behintzat, feria berrekuratzeari esker, urteko egunik ederrena izan zen. Herriarrek emandako ustegabeko erantzunarekin antolatzaileak oso pozik daudenez, aurtengo ekimenak jarraipena izanen duela ziurtatu daiteke.

Kultur Elejira

Kultur Elejiraren barre-

nean bi ekitaldi egingen dira. Abenduaren 28an, bertso-magia saioa izanen da 19:00etan Udaltxeko Ganbaran. Biharamonean, abenduaren 30ean, Leitzako Abesbatzaren kantaldia izanen da 20:00etan Ganbaran.

Segiren intsumisio kanpaina

Segi gazte erakundeak egiten ari den intsumisio kanpainaren barrenean bi ekintza egin berriak dira herrian.


Lehenengoan frankismoaren garaiko hainbat sinbolo kendu zituzten, eta abenduaren 6an, berriz, espainiarren konstituzioaren ale bat erre zuten plazan 40 lagunen aurrean.

San Andres eguna eskolan

Ederki aski ospatu dute aurtengo ere eskolan San Andres eguna. Gaztetxoek arteko bertso saioak eta Pello Añorga ipuin kontalariaren emanaldia izan ziren ekitaldiak aipaga-

rrienak. Bertso-paper lehiaketan berriz, ondoko argazkian ageri diren Ainhoa Zabaletak, Maria Eskuderok eta Ane Tabernak lortu zituzten sari nagusiak.

Beste aldetik, Guraso Elkartekoek esan digutenez, eskolako ikasle guztiak olentzero bat bakararekin ibiliko dira aurtengo etxeko eskean. Jasotako dirua DBHkoen ikasbidaia irako izanen da. Arratsaldeko 3:30etan aterako den euskal presoen aldekoa gehitu behar zaio



ARGAZKIA: MARTINE AIZETXEA ETA ESKOLAK UZDAR

Feri egunean joareak egiten eta San Andres eguneko irudiak; ipuin kontalaria haurrekin eta bertso-paper lehiaketako saridunak.

eskolako olentzeroari.

ARESO

Elizako teilatua moldatzen aritu dira peoiak eta boluntarioak

Eguberrietako tailerrak prestatu ditu Euskara Zerbitzuak.

Juana Mari SAIZAR

Elizako teilatua nahiko hondatuta dago, batez ere atzeko aldean. Hori dela eta bolondres batzuek bi peoiekin batera, errepasoa eman

zioten pasa den asteburuan. Beharrezko premia dauka teilatu horrek bainan diru falta da oztopo handiena.

Aurtengo negua nolabait salbatu nahi da.

Itzalak taldea

Euskara Zerbitzuak antolatuta, Itzalak taldeak emanaldia eskaini zuen Pake-toki Ekar-tean. Badirudi pixkana-ka pixkana euskal kul-

tura musikala sartzen ari zaigula, gero eta jende gehiago hurbiltzen baita musikaz gozatzera. Goiko solairua bete egin zen eta kantu eta ahots ederrak entzun genituen. Bi abeslariak zoragarri aritu ziren, jendeak atsegin handiz entzun zuen kantaldia. Arrakasta ikaragarria izan zuen.

Aerobik

Aerobikeko klaseak

martxan jarri dira asteazkenetan eta ostiraletan ordu batez, eta Monitorea Nerea leitzarra da.

Eguberrietako tailerrak

Eguberrietako jokuak eta tailerrak prestatuko dituzte begiraleek. Eskola obretan dagoenez, udalak duen areto batean egingo dituzte aktibitateak, urtero bezala Euskara zerbitzuak antolatuta.

LEITZA

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuaren urteko aurrekontua onartu da

45.622 eurokoa da eta erditsua Leitzako Udalaren esku izanen da

Mikel ILLARREGI

Dakizuenek, Euskara zerbitzuak inguruko lau herrietan (Leitza, Areso, Goizueta eta Arano) funtzionatzeko du Mankomunitate gisa. Urtean zehar hainbat ekimen antolatzen du eta horietako batzuk dira aspaldion ezagutu ditugunak. Gureari dagokionez, Txan magoaren emanaldia zineman eta abendurako pentsatua zegoen arren, heldu den urterako "Liburu bat egiten" erakusketa aipa daitezke. Dena den horrez gain badira argitalpenak, kanpainak, bestelako kultur jarduerak, euskalgintza zein herri-arrantzat dirulaguntzak, aisialdia, Bai Euskarari akordioa, Leitzako hiztegia, eta abar luze bat. Honek guztiak 45.622 euroko aurrekontua du eta ekarpen bakar batzuek eta Nafarroako Gobernuak sail ezberdinetatik ematen duenaz gain, Udalen ekarpena da sarrerarik nagusia; 30.000 euro inguru. Hauetatik, biztanleen arabera egiten denez, handiena Leitzako udalari dagokio, 23.000 euro inguru.

IKAk liburua argitaratu du

Urte batzuk lanean aritu ondoren, IKAk kideak diren edo izan diren Agurtzane Aleman, Aitziber Bergara, Amaia Astibia, Kontxi Zozia eta Kepa Mateorena di-



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Abenduaren 18 eta 19an "Orientazio ikastaroa teoriko-praktikoa antolatu zen Amaia Elosegiren eskutik.



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Eskola kontseilurako bozketan parte hartze handiago espero bazen ere, %30ra besterik ez zen iritsi.

ra "Euskararen arau-gintza: Arauak eta Hiztegi Batua" liburuen egileak. Liburu honetan, Euskaltzaindiak uztaila bitartean zabalduko arau bakoitzarekin azalpenak, ariketak eta ebazpenak biltzen dituzte. Liburuak sei atal ditu: sintaxia, ahoskera, onomastika, aditzlaguntzaile batua eta hiztegi batua. Ondoren 210 galdera daude test modura. Orain ospatu be-

rria den Durangoko liburu azokan salgai jarri dute. Hala ere, herriko bi liburutegietan 20 euroen truke eros daiteke.

Eskola Kontseilurako kide berriak

Aurreko alean aipatzen genuen moduan, Eskola Kontseilu berria aukeratu da abenduaren 2an gurasoen artean aukeraketarako hauteskunduak egin ondo-

ren. Sei ziren aurkeztu ziren bolondresak. Gurasoen %30,6ak solilik hartu zuen parte, hau da 287tik, 88k. Emaitzak ikusi ondoren Urko Arozena eta Rosa Sestorain izanen dira hemendik aurrera ordezkari gisa arituko direnak. Ordezkoak Esther Alcaraz eta Arantxa Azpiroz egokitu ziren. Eskola Kontseilua honaste kideak ondoren aipatzen den osaketa izanen du hemendik aurrerantzean. Eskola Kontseiluko burua: Heleni Zabaleta. Ikasketa burua: Sagrario Lasarte. Idazkaria: Rosarito Ormazabal. Irakasleak: Enrike Prados, Kontxi Alfaro, Amaia Ruiz, Arantxa Azpiroz eta Axun Azpiroz. Gurasoak: Maria Arretxe, Arantxa Marinelarena, Urko Arozena eta Rosa Zozia. Gurasoen Elkarteko ordezkaria: Josune Marzol. Udaleko ordezkaria: Patxi Saenz. Zerbitzutako ordezkaria: Martin Mari Astibia.

Berria

Hemendik aurrera berriemaile berria izanen duzue. Arantxa Iparragirre hain zuzen. Horrelakoetan esan ohi den moduan, irakurle zartzen guztioi agur eta horrela jarraitu. Eskerrak lagundu duzuen guztiei. Eta gehiago nahi zenuenentzat ea gehiagotan gozatzen duzuen hemendik aurrera. Aio!

FLASH

Orain

"Orain Herria, Orain bakea" proposamenaren aurkezpena egin zen abenduaren 11n herriko zineman. Mahai Nazionalako Joseba Permach etorri zen proposamena azaltzea. Egun berean Leitzako eta Goizueta-ko Gazte asanbladek, ekimen bateratua egin zuten herrian. 17:00etan eman zioten hasiera Goizueta-ko gazteei ongi etorria emanez. Ondoren jokoak, triki-poteoa, afaria eta kontzertuaz gozatu ahal izan zuten.

Kartzelaz aldatu

Igor Astibia hasieran Soto del Real-eko kartzelan espetxeratu bazuten ere, berehala Navalcamero espetxera aldatu zuten. Orain, urruntasun hori laburragoa izan dadin, bere helbidea zabaldu dute herri-arrantrek idatz diezaioten. Nahi duenak honako helbidea jarri behar du: Igor Astibia Teiletxea Centro Penitenciario de Navalcamero Madrid IV- Modulo 7 Apdo de Correos 195 28600 Navalcamero (Madrid)

Bestaldek aipatu gertaera hau salatzeak, eta lehenbailehen bere askatasuna eskatuz, sinadura biltzeko ekimena antolatu dutela. Sinadura paper horretan, bere detentzio eta ondorengo egoeraren beldur eta kezak aipatzen dira. Gogorazten dute, "Igorrek, haiek egindako akusazio guztiak ukatu egin ditu, bai polizia aurrean, bai epailearen aurrean" eta horregatik "inongo frogarik eta inolako oinarririk gabe, hainbat eta hainbat euskal herritar dauzkaten bezalaxe" daukatela ondorioztatzen dute.

BAZTAN

«Tuku-keta» mahai jokoa salgai izanen da Eguberrietan

Baztani buruzko lauhun galdera biltzen ditu

ttipi-4tapa

Baztango Balleko Etxeko Euskara Zerbitzuak prestatu duen Tuku-keta Baztango mahai jokoa salgai izanen da Eguberri hauetan Balleko Etxean eta Fanbiken.

Mendez mende pila-tutako kontu ugarik sortzen dute herri baten nortasuna. Hala, TUKU-KETA mahai jokoa helburua Baztango eskua, historia, ohiturak... hobeki ezagutzeko modo eroso, entretenigarri eta atsegina eskaintzea da. Azken finean, jokoa bidez Baztango nortasunaren elementuak ezagutarazi nahi dira, horrela, hobeki zaindu, gorde eta biziberrituko direlakoan. Joko hau egiteko momentuan hurbiltasuna izan dute irizpide nagusia. Izan ere, herriko toponimia, gertakizunak, ohiturak eta abar, belaunaldi berriek ez dituzte ezagutzen, bizi-modue bera aldatu egin baita.

Tuku-keta galderantzunezko jokoa da. Jokoak Baztani buruzko 400 galdera ditu.

Gutierrez bi lagun behar dira jokatzeko,

baina bestela ez du mugarik; jokoa gazte eta helduendako pentsatuta dago eta banaka edo taldeka aritzen ahal da.

Era guztietako galderak daude, guztiak lau gaitan bilduak:

1. ESKUARA: Baztango solasari buruzko galderak, baita Baztango eskuararen alde nabarmendu diren pertsonenak ere.

2. GEOGRAFIA ETA HISTORIA: Baztango toki izenak, herriak, kuartelak, mendiak, Baztango historia eta arteari buruzkoak.

3. OHITURAK ETA KIROLA: Lehenagoko kontu eta ohiturak, bestak, dantzak, tradizioak, herrikirolak, kirolariak...

4. DENETARIK: Bertze ataletan sartzen ez direnak, bitxikeriak, Baztango aferak...

Erran bezala, Baztan ezagutu eta bide batez ongi pasatzeko aukera eman nahi da joko honen bidez, eskoletan nahiz etxeetan aritzeko, gaztetxoak nahiz helduak.

Jokoaren helburua nagusia eskua eta eskual kulturaren normalizazioa da. Baztango esparrura mugatua.



Lau gaitan bilduak, era guztietako galderak daude.

EGUTEGIAK

zuk nahi duzun
argazkiarekin

2005



HANDIAK

Handia A3 7 €

→ Handi gehiago,

2-5 6 € bakoitza

5-10 5 € bakoitza

10etik gora 4 € bakoitza

→ Handia plastifikatuta 9 €

plastifikazioak + 2 € bakoitza

TXIKIAK

6 arte 6 €

18 arte + 0.60 € bakoitza

18tik gora + 0.50 € bakoitza

Handi bat

+ 6 txiki plastifikatuta 12 €

Handi bat plastifikatuta

+ 6 txiki plastifikatuta 14 €

KULTURKARI

Andutzeta, 12 • ETXALAR • 948 63 54 58

BAZTAN

«Kultura Neguan» egitaraua ekitaldiz gainezka ari da gauzatzen

Baztandarren Biltzarrek antolatu du Mendigoizaleekin elkarlanean

ttipi-ttapa

Baztandarren Biltzarrek antolatuta Baztango Mendigoizaleak taldearekin elkarlanean, Kultura Neguan izeneko egitarau zabala gauzatzen ari da asteotan. Abenduaren 11n, Mugaldekoak ikuskizunean, kantuak, poemak eta bertzelakoak aditzeko modua izan zen Arizkunenea Kultur Etxean, Edu Zelaia eta Bernardo Goietxe eta Raul Gartzia beratarren eskutik.

Abenduaren 18an, larunbatarekin, bertso saioa eskaini dute Arizkunenean Jon Barberenak, Xebastian Lizasok eta Jon Martinek. Abenduaren hondar aldera, haurrendako tailerrak izanen dira: 27an Amaiurren, 28an Elizondoko, 29an Anizen eta 30ean Iruritan eginen dira, guztiak atsaldako 3:30etatik 6:30ak arte.

Abenduaren 28tik urtarrilaren 3a bitarte mendiko diapositiba eman



ARGAZKIA: OHEWIL

Santa Barbara eguna ospatu zuten Elbeten

Elbeteko bizilagun batzuk Santa Barbara eguna ospatu zuten abenduaren 4an, Ameztu mendi magalean dagoen izen bereko basilizan. Garai batean igeltsero eta harginen eguna izaten zen, baita artillero eta meatzariena. Abenduaren 4an meza eman zuen Javier Azpiroz apezak eta ondotik hameketakoa izan zuten bertaratu zirenek. Santa Barbara basiliza egoera onean dago, nahiz eta duela urte batzuk ezkila ebatsi zuten.

naldia izanen da, egunero 20:00etan.

Urtarrilaren 4an, "Frankismoaren esklabuak Nafarroan" izeneko solasaldia eskainiko dute Iker Frias, Edurne

Beaumont eta Fernando Mendiola Arizkunenean 20:00etan. Kultura Neguan egitarauari akabaila emateko, urtarrilaren 8an, kontzertua eskainiko du Hiru

Truku taldeak Lur diskotekan, 20:00etan. "Nafarroako kantu zaharrak" diskoaren aurkezpena eginen dute Elizondoko dantzaleku berrian.

FLASH

Bretaina Handiko globoa Arraiozen

Maiatzaren 3ko lehia-keta batean Bretaina Handiko Somerset herrian askatutako globo bat topatu zuen azaroan Arraiozko Larrazu mendian herriko gazte batek. Bueltatzen duenarentzat 5 libako saria dago, baina epea maiatzaren 18an akitu zen. Dena den, igortzeko asmoa dauka topatu duenak, jakin dezaten globoa noraino aliegatu zen.

Elizondoko Gaztetxearen hitzarmena

Elizondoko Herriko Etxeagazteeiuzteko hitzarmen-agiria sinatu gabe segitzen du, azken hiru batzarretan eztabaidatu den arren. Gazteek joan den uztailetik erabiltzen dute etxea, horretarako batzarrearen baimena izan baitzuten, baina orain baldintzak adostea eta paper gainean ezartzea falta da. Dagoeneko arduradun bat izendatu dute gazteek, baina bertze zenbait punturekin ez daude ados. Herriak proposamen bat aurkeztu zuen eta gazteek bertze alternatiba bat ekarri dute. Orain, biltzekotan eta agiria adostekotan gelditu dira.



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Mena Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
948 581807 • 948 581853



BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

BAZTAN



ARLAKOZ, OROZKO

Valentin Barragan zenari omenaldia Arraiozen

Berriki hil den Valentin Barragan dantza irakasleari omenaldia eskaini zioten Arraiozko herriak, bere dantza ikasleek, senide eta lagunek abenduaren 5ean. Mezan Arraiozko abesbatzak kantatu zuen, Josune Makibaren parte-hartzearekin eta Maria Angeles Urdanizek jo zuen organoa. Irungo Meaka dantza taldekide batek bertsoak kantatu zituen. Meza ondotik, txistulariak, txalapartariak, gaitariak eta atabalariak aritu ziren, Meaka dantza taldekoek dantzatzen zuten bitartean. Erregina ta saratsak ere ez zuten hutsik egin, Valentin Barragan zenaren eskutik berreskuratu baitziren Arraiozen.

Eguberrietako artisau azoka eginen da abenduaren 23an Elizondoko Abastos Plazan

Etxeko produktuak saldu nahi dituen edozein baztandarri gonbitea luzatu dio Cedernak

ttipi-ttapa

Baztango artisau talde batek ortzegun honetan, abenduaren 23an "Eguberrietako ar-

tisau azoka" antolatuko du goizeko 10etatik arratsaldeko 19.30etara, atsedeen gabe. Salmenta postuak Horni-

dura-azokan (Plaza de Abastos) kokatuko dira eta bertan Baztango artisauak eta nekazaritza-ekoiz-



UTZIANO ARIZAGA

140 kiloko basurdea ehizatu du NARBARTEN AZAZKORRO TALDEAK

Oronoz, Mugairi eta NARBARTEN ehiztariak biltzen dituen Azazkorro taldeak 140 kiloko basurdea bota zuen azaroaren 6an NARBARTEN mendietan. Talde honek aurten ehizatu duen handiena izateaz gain, inguru horretako ehiztariak ez dute gogoratzen hain basurde handirik inoiz bota dutenik. Argazkian, Ismael Oteiza nARBARTEN ageri da.

leek produktu desberdinak eskeiniko dituzte. Orain arte dozena bat saltzailek baieztatu dute ferian egon direla baina komunikabideen bitartez etxeko produktuak saldu nahi duen edozein baztandarri parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi diote. Horrenbestez, interesatuek bete beharreko baldin-

tzak ezagutzeko Cederna-Garalur erakundeak Balleko Etxean duen bulegora deitu behar harko lukete (948 580561 telefonora).

Herrietako alkateak

Igande honetan, abenduaren 19an, aukeratzekoak ziren herrietako alkate-juradok.

asnapi me
aspirantea berritu eta laguntza ematea

• GIZARTE ETA LAN ARLOA
• KONTABLE-FISKALA
• JURIDIKO-MERKANTILA

• LANGILE AUTONOMOAK
- Garraiok
- Elektrizitatea
- Eraikuntza
- Igaltzerok...

• NEKAZARIK ETA MENDI LANGILEAK
• ENPRESA GUZTIAK

• Nominak eta Aseguro Sozialak
• Kontabilitateak
• IVA eta IRPF
• Garraioan azerorrendua
• Diru-laguntza ezberdinak
• Sozietateen inpostuak
• Errenta aitortpenak

ORONOZ
Baztan, 31. bulego
Tele: 948 511333 Fax: 948 511610
oronoz@asnapi.me

ELIZONDO
Baztan, 31. bulego
Tele: 948 511333 Fax: 948 511610
elizondo@asnapi.me

MUGAIRA
Baztan, 31. bulego
Tele: 948 511333 Fax: 948 511610
mugaira@asnapi.me

BURKAITZEA

ostatu
erretoria

Zugarramurdi bidea, 3 km.
948 599260 • UROAZUBI

*Eskisaroi
jatetxea*

Jaime Urbiola, 948 580 013
ELIZONDO



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Gero

Ituriz Auzoa • 948 592043 • OROZ-MUGAIRI

AZKAIN

«Elkarlana Azkainen» elkarteak sortu dute herriko artisau eta komertzioek

Eguberriko Merkatua antolatu da Turismo bulegoaren laguntzarekin

Angela eta Xamo

Duela gutxi, herriko artisau eta komertzioak elkarte berri batean bildu dira, herri aintzietan egiten den bezala. Elkarte horren izena: "Elkarlana Azkainen". Sortzaileek erakutsi nahi dute nola aberatsa den gure herriko ekonomikoaren oihala. Egia da gutti gorra behera, 150 enpresari desberdin (komertzio, artisau, zerbitzu...) atsematen ahal direla gure herrian. Baina Azkaindar gehienek eta batez ere herrirat etorri berriek ez dakite hainbeste komertzio eta zerbitzu proposatuak direla Donibaneraino gango. Elkarte berri horren lehen helburua izanen da beraz herritarren informazioa. Ekitaldi batzuek bururatu nahi dituz-



te heldu den urteko. Hala nola pentsatzen ari dira janeko komertzialaste bat edo hamabostaldi bat antolatzen.

Telethon

Aurten ere Telethon egunak arrakasta han-

di bat izan du gure herrian. Gertakari guzietan, eguerdiko paella, aratseko eltzekaria eta paztizen salmenta, 5000 euro ekarri dituzte. Erran behar da ere egitarau polit bat presentatu zuela Kulki elkarteak.

Plazan ostatuko ekitaldiak

Plazan ostatuak idekiko du abenduaren 24, 25 eta 31n.

Abenduaren 25 ean, «vodka-caramel» le-marekin gaudi antolatzen du, gaueko 7 eta-

tik goiti. Urtats gauean, pintxo batzuek proposatuak izanen dira aperitifaren denboran eta ostatua gau osoa idekia izanen da. Goizeangoz nahi duenak gosaria hartzeko posibilitatea izanen du.

Eguberriko merkatua

Turismo bulegoaren laguntzarekin, Eguberriko Merkatua antolatua izan da, ganden urtean bezala, abenduaren 11n. Goizean, urtean osoan hor diren merkatariek abertzen ahal genituen; baina aurten, egun osoan egon dira.

Haiekin, eskulangileak, heien erakusketak presentatzeko. Atsaldan, eskolako haurrak etorri dira eguberriko kantuek kantatzeko. Hori ondotik, plaza bertan, krakada bat proposatu izan da haurrentzat, eta arno beroa gaztain batzuekin helduentzat.

Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko S.A. Pol. Zelaia, s/n. 31780 Bera, Navarra
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

TRUCCIO GOIENETAE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA

- Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripo eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria**
 - Baserri, bodega, pisu, etabaren salmenta eta alokairu
- Gestoria**
 - Itelgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tívia via Fax: 948 58584 - ELIZONDO

ONASKA
ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasatzen
Bagordiko bidean • ELBETE
948 45 20 88

SENPERE

Etchola etxegintza lantegiaren hesteak oihartzun handia izan du Senperen

Herriko laborategiak ateak hetsi ditu ezin baititu pagatu normetan izateko egin behar diren lanak

Franck DOLOSOR

Baionako Maisons Etchola lantegiaren hesteak solas ainitz piztu ditu herrian enpresa hune obra andana egin baitu gure eskualdean. Baionako merkataritza auzitegiak likidazioa judizialean ezarri zuen Etchola abendu hastapean. Lapurdin, etxegintzan ari den lantegi haundienetarik zen Etchola. Urte guziz, 120 etxe eraikitzen zituen eta bere hesteak lurikarra sortu du etxegintzan. Hamabortz langileak kanpo eman dituzte eta Etcholak partaideek ere egoera latza biziko dute seguraski hemen-dik goiti.

Etcholak etxe ainitz altxatu ditu Senperen eta lana eman diote herriko artisau ainitzeri. Orain ere, obra batzuk

egiten ari zen Etchola. Senpereko zurgin batek lan batzuk egiten ziozkan enpresa huni. TTIPITAPARI erran dionaz ez du diru galtzerik izanen klienteak berak pagatuko baitiozka egin zituen lanak. Lege berri batek ematen omen du para-da hori. Etchola diru problemak ezagunak baitziren klienteak deliberatu zuen zurgina zuzenean pagatzea Baionako lantegiko moltsatik pasa gabe. Zurgin hunek lan batzuk balizik ez zituen egiten Etchola-rentzat beraz ez du galtzerik izanen. Lapurdiko artisau ainitzek al-diz problemak izanen dituzte ez baitute xentimorik sakelerat emanen jadanik egin dituzten lan batzuentzat.

Enpresaren hestearekin, Senpereko E-



LARGAZIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Aurten 30 eta 40 urte bete dituzten senpenterrek afariak ospatu dituzte berriki.

tchola-rentzaren baten obrek beranta hartuko dute. Dena den, TTIPITAPAK jakin duenaz, kliente hunen etxea bermatzaila batek bururatuko du bere kontratuan bururatzeko osoaren bermea agertzen baita. Berme horretaz gozatze-ko etxearen prezioaren %5

pagatu behar da bainan berantarengatik esku-ratuko duen indemni-zazioak estaliko omen du gastu hori. Etcholak dirua galdetu dio behin baino gehiagotan kliente huni bainan ez du sekulan pagatu nahi izan lanak ez baitziren buru-ratuak.

Laborategiak ateak hetsi ditu jabeak ezin baititu pagatu normetan izateko egin behar diren lanak. Heste hune-gatik herriarrek Donibane-Lohizunerat, Baionarat edo Kanborat gan beharko dute odol ateratzeko eta analisiak egiteko.

ZOANSA

SEAT Audi VW SALMENTA

MARKA GUZIEK KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA (Sarrera Beratik)

bentamiguel

Ongi zaindutako sukaldaritza Menuak aukeran

Talokoa, Likorak, Emaitzak, Urtarrak

Ibardinga Lepoa • 948 631209

Eguberriko jentziak...
mirrikak, argiak,
kandak,
lure onak, etab.
Zure menuak
egon!
Zure menuak
egon!
Zure menuak
egon!

ESKUZ HOLAKATUA

2004/12/23 • 388. zbk.

SARA

Laster Olentzero gurekin

Hiru eskoletako haurrek ongietorria egingen diote kantatuz



ARTIBERRIA

Aurten ere, ikastola, eskola publiko eta Saint Josepe eskolako ikasleek ongietorria egingen diote Olentzerori.

Saski eta Laetitia

Abenduaren 23an ostegunarekin, laugarren urteko, Olentzero bere karroarekin menditik jausiko da arratsaldean herriko plaza-
ra, bidea abxematen baldin badu. Hiru eskoletako haurrek (ikastola, eskola publiko eta saint Josepe eskolakoek) ongi etorria egingen diote kantatuz. Haurrak txintxoak egon badira urte osoan, olentzerok goxokiak banatuko ditu. Lehen urtetan bezala, errebotetik abiatuko da eta karroz ibiliko ditu haurrak

plazan barna.

Egun berean, arratsaldeko 1ak 30etatik goiti, haur guztiak zaharren etxera joanen dira, bertan dauden zaharguzieri bisita egitera eguberri kari.

Telethon

Sarako turismo bulegoak, Larrungo trenaren buruzagiak eta langileak, elkarteak, eskolak, ikasleen burasak, haurrak, Telethon-en parte hartu duten guztiak eskertzen ditu. Emankortasunari esker, AFM TELETHONari

2.228,32euroko korpurua igoria izan da. Milesker deneri.

Eguberriko afaria

Sarako Urtxintxak, esku baloi taldeak eguberriko afaria egiten du abenduaren 18an omordiako gelan, 7ak 30etatik goiti zintzur bustitzea hasiko da pintxoekin.

Bestak heldu direla eta presoak gogoan

Euskal presoen aldeko zozketa antolatua da urtero bezala Saran.

Orotara, hiru saski emana dira, bat Trinketeko ostatuan bertzea Herriko Etxeko Edantegian eta azkena Urtxolan. Txartelak eros daitezke taberna hauetan eta emaitzak urte xaharrez jakinen dira. Hitz horien bidez nahi dugu gure elkartasuna adierazi preso guzietan.

Sarako Izarraren txapelketa

Sarako Izarra, pilota elkarteak, esku huskako txapelketa antolatzen du urtarilean. Lau sail desberdin izango dira.

Izenak ematen ahal dira abenduaren 24 arte, 05.59.54.29.19. edo 05.59.54.23.69 zenbakietara deituz jateko tenoretan. Parte hartze-ko, pertsona bakoitzak 20euro ordaindu beharko du.

Dantza ikastaroa

Ihauteriak ahal bezain ongi prestatzeko Sarako Gazteak dantza ikastaroak antolatzen ditu ostiral gaue-tan 9ak 30etatik goiti. Denak ongi etorriak zarete!

ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekari-tza
- Aseguruak

Kanttonberri • BERA • Tel eta Fax: 948 631169

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasola etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MADAN ETA VERONIQUE
SARA • Tel. 0559542519

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

Inportaziozko leben kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 • 23. pabillioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Santiago Bideko aterpetxea ireki da Urdazubiko monastegian

Azaroaren 27an egin zen inaugurazio ekitaldia

Margari eta Koro

Azaroaren 27an inauguratu zen Urdazubiko Monastegian Santiago bideko aterpetxe bat. "Baztango Santiago bidea" bezala ezagutzen den hau, Baionan hasten da eta Urdazubira sartzen da, ondotik Baztan guztia gurutzatuz Iruñeraino ailegatzen da eta han Orreagatik datorrenarekin bat egiten du. Orreagatik sartzen den bidea erromesez gainezka egoten denez, hoietatik parte bat hermendik sartzea da intentzioa, eta Nafarroako Gobernua horretan saiatuko dela adierazi du. Gaur egun bide hau gutxi erabiltzen da, baina garai batean, jende franko ibiltzen omen zen, batez ere negu aldean, Ibañeta eta Somporteko

mendateak elurtzen zirenean, eta hiru aterpetxe omen zituen. Gaur egun Urdazubikoarekin batera Amañuren eta Lekearotzen ere badaude aterpetxeak, eta intentzioa da Ustaritzen, Lantzen eta Berroeta edo Almandotzen ere irekitzea.

Urdazubiko honek 20 ohe ditu, hiru dutxa eta lavabo, bi komun eta egon-gela bat. Egunez irekita egonen da eta gaua pasatzeak 5 euro gostako du. Arduradun bezala Mari Carmen Almandoz urdazubiarrak izanen da.

Puntu beltza Atxurian

Mendian barna ibiltzea gehienez gustatzen zaigu, baina mendi hoiek garbi eta txukun ikustea ere bai. Hori de-



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARRI

Andres Diharasari Urdazubiko aillkatea eta Goio Hualde, lezeetako ardura-duna, monastegiko klaustroaren lorategian.

la-eta, web orri batek argitaratu ditu Nafarroan aurkitzen diren 47 "puntu beltz", hau da, zikin-keri edo hondamendiak agertzen diren tokiak. Toki bakoitzaren argazkia ikusten da, non kokatuta dagoen eta azalpen guztiak.

Puntu beltz hoietatik lau Ttipi-Ttapako eremuan daude: Beran, Zugarramurdi, Amañuren eta Azpilkuetan. Baina zerrenda hau ez da itxia, alderantziz baizik: halako tokiren bat ezagutuz gero, edozeinek igortzen ahal du argazkia edo behar diren xehetasunak web orri horretan agertzeko. Hor agertzeak ez du seguraski arazoa moldatuko, baina jendeari pitten bat pentsaraztea lortzen ba-

da, behar bada lagun-garri izanen litzake.

Zugarramurdiko puntu beltza Atxurian dago, eta poste geodesikoa eta buzoia hondatuak daudela adierazten du. Honen berri baginuen, eta badakigu hain xuxen Udalak plaka bat jartzeko intentzioa daukala. Web orriaren helbidea hau da: rutasnavarra.com, eta behin barnean "Merin" era joan eta hor "zaborrerias" hautatu. Joan eta ikusi-ikusi!!

Alkerdiko San Esteban bestak

Aurten Alkerdiko San Esteban bestak aste bat aintzinate behar izan dira: Gabon gauakin ez koinziditzeko, abenduaren 18an egin ziren.

"Burkaitzea"n laurogeita hamar bat lagun bildu ziren afarian eta ondotik Irurritako Frantzisko akordiolariak jarri zuen giroakin ederki pasatu zuten.

Beleneko jaiotzaren antzerkia

Abenduaren 19an Beleneko jaiotzaren antzerki bat ikusteko aukera izan ginuen Zugarramurdiko elizan. Bi herrietako hogoi bat hurrek parte hartu zuten, Mila, Maribel eta Mari Carmenen gidaripean, eta funtzio eder bat erakutsi zuten. Ondotik "Akelarrean" txokolatada eman zen joan nahi izan zuten guztientzat. Eguberrian sartzeko manera pullita.

telefono bat
012
herriarrentzat

Udala zure zerbitzuan

Kulturako eta kirolako agenda, Udai informazioa,
Kultur eta astialdi jarduerak, Zilurtagiriak eta ordainagiriak,
Zerbitzu Orokorrak, Gizarte zerbitzuko laguntzak.

INFO-LOCAL

Nafarroako
Gobernua

EUSKARA



Pello Apezetxea Ohorezko Euskaltzain izendatu dute

ttipi-ttapa

Azaroaren 26an Euskaltzaindiak Gasteizen egin zuen osoko bilkuran, ohorezko euskaltzain berriak izendatu zituen. Orotara, 11 ohorezko euskaltzain berri izanen ditu Akademiak hemendik aurrera. Hamaika lagun horien artean, Pello Apezetxea Zubiri Etxalarko apezka eta TTIPI-TTAPA FUNDAZIOKO presidentea dago.

Euskaltzaindiko Araudiaren 39. artikulua esaten duen legez, Euskaltzain ohorezkoen mailan sartuko dira Euskaltzaindiaren ustetan euskarari mesede bikainak egindako lagunak. Izendatuak izateko, idatzizko proposamena behar da, nahiz Zuzendaritzak nahiz bi euskaltzain osok egina, eta batzarra berak onartzea.

Pello Apezetxea Zubiri Goizueta sortu zen 1932ko ekainaren 24an. Giza Zientziak, Filosofia eta Teologia ikasketak burutu zituen. Iruñeko Apaizgaitagian, 1955an apaiztu zen eta gero, Elizbarrutiko Presbiterio Kontseiluko kidea izan zen eta Bortzirietako Artzapeza. Gaur egun, Etxalarko parrokiaren erretorea da. TTIPI-TTAPA ALDIZKARIAN, Etxalarko berri emalea izan da. Gaur egun, TTIPI-TTAPA FUNDAZIOKO presidentea da. Bertzalde, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen sortzaileetakoa da. Mankomunitate horretako Aholkulari batzordekidea eta baita Etxalarko Euskara Batzordekidea ere.



ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

Bortzirietako hainbat gizarte eragile izan ziren Lesakako aurkezpenean.

Bai Euskarari Akordioa aurkeztu zaie Bortzirietako gizarte eragileei

Abenduaren 16an egin zen ekitaldia Lesakako Kasinoan

ttipi-ttapa

Bortzirietako Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordeak gonbidatuta, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Kontseilua tarteko, hainbat gizarte eragile bildu dira Lesakan, abenduaren 16an egindako ekitaldian. Ekitaldi honen helburu nagusia Bai Euskarari Ziurtagiria zer den azaldu eta eragileak konpromisoak hartzea animatzea izan da. Izatez, dinamika honen helburua erakunde, enpresa eta elkarteetan eragitea da, beren hizkuntza normalizazioa erdiesteko. Azken urteetan eskualdeko euskara mankomunitateak egin dituen hainbat lan ildo indartzera dator Bai Euskarari Akordioa.

Ekitaldian honako hauek mintzatu dira: Xabier Mendiguren, Kontseiluko Idazkari Nagusia, Zigor Etxeburua, Kontseiluko teknikaria (Bai Euskarari Akordioaren xehetasunak azalduz), Iñaki Pikabea, Etxalarko Herriko Ostatuari izan duten esperientziaren berri emanez (Zigorrek maila teorikoagoan azaldukoari adibide praktikoa erantsiz), Iker Igoa, Mankomunitateko ordezkaria Jarraipen Batzordean, Patri Arburua, Bortzirietako euskalgintzaren izenean, eta aurkezpen lanetan Alaitz Zabaleta, Mankomunitateko euskara teknikaria.

Irailaren 29an Kontseilua eta Euskara Mankomunitatearen arteko hitzarmena sinatu zenetik, hainbat ekimen egin dira, ziurtagiriaren berri eman eta honen ingu-

ruko informazioa hedatzeko asmoz. Hemendik aitzinera, konpromisoak hartzeko fasea irekiko da. Bi teknikari, Iñaki Iratzoki eta Eneko Fernandez, hurrengo hila-beteetan eragileekin banaka bildu eta hauek konpromisoak har ditzaten saiaturiko dira.



**Teresa
SANSIÑENA ALBERRO**

Iturenen hil zen,
2004ko abenduaren 1ean

Betiko joan zara,
gugan zure huts mina utzirik.

SENARRA eta SEME-ALABAK

Gure saminarekin bat egin duzun eta bere
aldeko elizkizunetan parte hartu duzun
gurtiei, MILA ESKER.



EZKONTZAK

Manuel Sarobe Bereau eta Jamila Adoul, Lesakakoa eta Tangerkoa (Maroko), azaroaren 25ean.

Guillermo Rodriguez Garcia eta Izar Garmendia Perez, Donostiakoak Lesakan, apirilaren 24an.

Agustin Garaiala Zapirain eta Miren Josune Almandoz Maia, Olatzun eta lesakakoa, irailaren 20an.

Sergio Fagoaga Anso eta Beatriz Baze Baleztena, Oitz eta Zubietakoa, abenduaren 3an.



SORTZEAK

Unai Torres Aleman, Oronoz-Mugairkoa, azaroaren 23an.

Unai Iturbide Lazaro, Elizondokoa, azaroaren 26an.

Lorea Ballarena Telletxea, Elizondokoa, abenduaren 5ean.

Eneko Dagerre Martirena, Elizondokoa, abenduaren 8an.

Beñat Mortalena Libano, Elizondokoa, abenduaren 10ean.

Leire Sarratea Iparrea, Zigakoa, abenduaren 4an.

Junes Altzugarai Pernaute, Arizkongoa, abenduaren 8an.

Gonzalo Errandonea Aldea, Berakoa, azaroaren 16an.

Oihane Etxeberria Etxaide, Zugarramurdikoa, abenduaren 14an.

Hegol Baraibar Goñi, Aresokoa, urriaren 27an.

HERIOTZAK

Victoria Hita Artze, Elizondokoa, azaroaren 27an, 94 urte.

Dominique Aduritz, Sarakoa, azaroaren 20an, 62 urte.

Maria Lourdes Etxebeste Golenetxe, Berakoa, azaroaren 27an, 54 urte.

Juan Malda Irigolen, Urdazubikoa, azaroaren 27an, 74 urte.

Jose Telletxea Baleztena, Saldaskoa, azaroaren 29an, 76 urte.

Eugenio Almandoz Maia, Lesakakoa, azaroaren 29an, 93 urte.

Maria Jesus Etxabide Irigolen, Lesakakoa, azaroaren 30ean, 61 urte.

Maria Teresa Sansiñena Alberro, Iturengoa, abenduaren 1ean, 57 urte.

Bonifacia Zubietela Telletxea, Berakoa, abenduaren 4an, 94 urte.

Francisco Javier Golenetxe Irigolen, Irurikakoa, abenduaren 4an, 74 urte.

Maria Paz Larrea Olano, Leitzakoa, abenduaren 4an, 70 urte.

Luciano Errandonea Altzuguren, Berakoa, abenduaren 5ean, 83 urte.

Cesareo Ramon Negrete Sorriketa, Igantzikakoa, abenduaren 7an, 83 urte.

Josefa Elizalde Vera, Beran, abenduaren 7an, 88 urte.

Miguel Zabaleta Martirena, Leitzakoa, abenduaren 8an, 63 urte.

Urbana Golenetxe Irigolen, Berakoa, abenduaren 9an, 83 urte.

Manuel Aranburu Eliduaen, Leitzakoa, abenduaren 9an, 75 urte.

Manuel Garcia Hernandez, Beran, abenduaren 11n, 93 urte.

Dolores Iriarte Garate, Berroetakoa, abenduaren 14an, 85 urte.

Josefa Garcia Leoz, Arizkun, azaroaren 29an, 88 urte.

Pedro Mendioroz Eleta, Elizondon, abenduaren 9an, 81 urte.

Manuel Ziganda Goñi, Nartartekoa, abenduaren 8an, 62 urte.

Manuel Aizkorbe Salaberria, Goizuetakoa, abenduaren 1ean, 73 urte.

Silvino Penurena Apezetxea, Goizuetakoa, azaroaren 28an, 88 urte.

Clemente Suhas Etxaide, Urdazubikoa, abenduaren 14an, 85 urte.



Victoria HITA ARCE «Bittori»

Alejandro Juanikotena Torres-en alargana
Cancun-en (Mexiko) hil zen,
2004ko azaroaren 26an

Ez agurrik, ez adiorik
gero arte baizik.
Gure bihotzetan betiko
maite zaitugu amaxi.

ZURE FAMILIA



M^a Jesus ETXABIDE IRIGOIEN

Alejandro Juanikotena Torres-en alargana

Azken arratsan trantze larriak
nahiz jartzen gaituen izu
heriotzaren bidean goaz
asertzerantz pausaz pausu
iaz aitona joan zitzaigun
eta orain buzoaz zu
zeru bidea xamurtzearen
toi amaxi bi muxu
ta atautxiri besarkada bat
ikusten baldin baduzte.

ZURE FAMILIA



Iban ZUBIETA ERKIZIA

1977.08.17
2003.12.13

Orain ere gure artean zaude
gogoan zaitu, Iban

ZURE FAMILIA

AGINAGA, Mitxel

Kirolari narbartearrak Nafarroako mendi dualtloi txapelketa zazpigarren aldiz irabazi zuen urriaren 16an Ororbian jokaturako txapelketan. Orain, heldu den urtean Argentinan jokaturako Munduko Green Cup txapelketarako sailkatzeko lanean ari da.

ARESO

Lur gaineko Euskal Herriko sokatira txapelketan, 560 kiloko txapela irabazi zuen. 600 kilotaren bigarren izan zen.

ARRAZTOA, Tiburtzio

Laxoa Elkarteko zuzendari eta txapeldun gisara omenaldia jaso zuen Iruritan, elkartearen 25. urteurrenean. Gainera, bera da Baztan-Errekako laxoa eta paxaka txapelketak, biak irabazi zituen lehen pilotaria. Urteak darmaizki elkartean lanean eta orain «Guante-laxoa, la modalidad mas antigua de la pelota vasca» izeneko liburua aurkeztu du.

AURRERA

Leizako elkartearen izenean, Euskal Herriko klub arteko pala txapelketan gazte mailan txapeldu suertatu ziren leira Agirre leizarra eta Etxarri Saioa Aristoren. Txapeldun orde klub bereko Saioa Iraola eta Naiara Astibia izan ziren. Ez da emakumeen palak eman duen berripozgarri bakarra. Txapelketa berean, Igan-

tziko Biltokiko Amaia Goienetxe eta Ane Sainzek txapela lortu zuten kadete mailan. Senior mailan, Belatek antolatutako txapelketa irabazi zuten Leire Arretxea eta Bea Lizardi igantziarrek.

BERGARA, Ane

Finlandian jokatu zen Europako 19 urtez behetik futbol txapelketa irabazi zuen Espainiako selekzioarekin Berako futbolariak. Alemaniari 2-1 irabazi zioten finalean. Munduko txapelketan ere parte hartu du Thailandian, baina handik esku hutsik bueltatu zen.



Ane Bergara, Europako txapeldun.

BETI GAZTE

Lesakako sokatira taldeak hainbat gorabehera izan zituen Euskal Herriko txapelketan eta ez zuen txapelik lortu. Baina Eskoziako Glas-



Beti Gazteko sokatira taldea Munduko txapeldun eta azpitxapeldun izan zen Glasgow.

gow hirian jokaturako Munduko txapelketan arantza atera eta urrezko eta zilarrezko dominak eskuratu zituen klub arteko 600 eta 560 kiloko kategoriatan. Gero, taldea beritu arren, ez zuen arazorik izan Nafarroako txapel guztiak eskuratzeko.

BKT eskubaloit taldea Azken denboraldietan kantxetan irabazitakoa gauzatu ahal izan duarten Baztango emakumeen eskubaloit taldeak. Lehenik Maderas Azkona eta gero Magna enpresen laguntzari esker, Lehen Maila Nazionalean ari da. Lucia Parini atezain argentinarra ere fitxatu ahal izan du.

BRU, Jon

Hiru denboraldi Portugalen eman ondotik, txirrindulari beratarrek Nafarroako talde batean, Kaikun, segituko du profesionalek ibilbidea heldu den denboraldian.



Inaxio Errandonea, Frontiseko pilotaria.

ERRANDONEA, Inaxio Frontis enpresa berriaren bultzatzaile nagusietako bat izan da Alkaiagako pilotaria. Gainera, Nafarroako laurdikoko txapelketa ofiziala irabazi zuen, uztailaren 30ean Labriten jokaturako finalean Armendariz 22-20 irabazita.

ERREKA

Erreka kirol elkartea desagertzeko bidean egon daitekeela ohartarazi dute zuzendaritza batzordeko arduradunek. Herriko Etxeak, kiroldegia eta pilotalekua erabiltzeagatik elkarteari kobratzeko intentzioa du. Udalak jakinarazi duenez, kirol instalazioen mantenimendua garestia da eta erabiltzaileek nahitaez ordaindu beharra daukate. Horrek elkartearen etorkizuna kolokan jartzen duela aipatu dute Errekatik.

2000 kirol izen



Fernando Etxegarai, Nafarroako koxkor biltze txapelketa irabazi zuen iturritan.

ETXEGARAI, Fernando A zer urtea kirolari beratarrek osatu duen! Lehenik, koxkor biltzen berak zuen Euskal Herriko errekorra hobetu zuen Saldiasen. Lehen aldiz, sei minututik jaitsi zuen, 5 minutu, 59 segundu eta 85 zentesima behar izan zituen lana akautzeko. Gero, Nafarroako eta Euskal Herriko koxkor biltze txapelketak irabazi zituen eta Sarako Kontrabandisten Laisterketan eta Lizuniagako Igoeran ere gailendu da.

EZKURRA, Koteto

Bingo-Londres txapelketa irabazi du zortzigarren aldiz erremontelari doneztebarrak, irailaren 4ko final bikaine-



Emakumeak palan, eskualdean osasuntsu dagoen kirola

04ko rol degia

an Lizaso herritarri 35-33 irabazi ondok. Binaka ere finala jokatu zuen Kotetok, Patxi Olazar ibarekin bikote eginez, baina galdu egin zuten.

FAGOAGA, Jone
Plater tiraketako Skeet Olinpikoan Espainiako txapelketa, Erregearen Kopa eta Presidentearen kopa irabazi ditu tiralarari lesakarrak.

IRIARTE ahizpak
Nafarroako emakumezkoen paleta goma txapelketan txapeldun eta txapeldun orde izan ziren Nartabeteo Esther eta Maite Iriarte ahizpak.

JUDO
Nafarroako judo txapelketan podiumeko goitiko koxkara igo ziren Doneztebeko judo eskola-

ko Noelia Ariztia eta Itziar Jorajuria 23 urtez beheitiko mailako 52 eta 63 kilo baino gutxiagoko kategoriatan eta Cristina Mindegia, kadete mailako 63 kilo baino gutxiagoko kategorian.

KAXOT
Igantziko Udaberriko kultur egunak akitzeko, apirilaren 25ean Migel Angel Etxarte Kaxot zenari omenaldia eskaini zitzaion. Herrikirolmunduan aski ezaguna zen Kaxot eta horregatik, herrikirol jaialdi handia prestatu zen, 50 kirolari baino gehiago aritu baitziren lanean.

KILIMANJARO
Alejandro «Sanba» San Miguel, Tomas Sanz, Itziar Irastorza eta Maddi Ruiz mendizaleek osatutako Erreka mendi taldeko espedizioak Afrikako gailurrik garaiena, Kilimanjoroko Uhuru Peak gaina, igaita lortu zuen otsailaren 11n.

LARRALDE, Angel
Angel Larraalde urdazubiarra eta Pello Zapiain hondarrabiarra irabazi dute Nafarroako lehen mailako paleta goma txapelketa. Otsailaren 22an Iturramako Lopez pilotalekuan jokatutako finalean 35-23 irabazi zieten Lopez eta Olaberri.



Donato Larretxeak zortzigarren aldiz irabazi du Nafarroako aizkolari txapelketa.

LARRETXE, Donato
Nafarroako aizkolari txapelketa irabazi zuen azaroaren 19an Donezteben. Orokorrean, denboraldian Nazabal nagusitu bada ere, urteko lehen txapela (Binakako Urrezko aizkora Mindegia gaztearekin) eta azkena, Nafarroako txapela, Donato irabazi ditu.

MEOKI, Fco. Javier
Txirrindulari elizondarrek 40-45 urte arteko beteranoetan Europako txapeldun suertatu da.

MINDEGIA, Xabier
Otsailaren 29an Azpeitian jokatu zen binakako Urrezko Aizkolarien finala irabazi zuen Donato Larretxearekin batera. Nafarroako bigarren mailako txapelketa ere irabazi zuen Beintza-Labaiengoak iraila-

ren 26an Uhartel-Iruñan eta heldu den urtean lehen mailan arituko da.

NARBARTE, Ekaitz?
Elgetako laurdiko txapelketan, kadete mailako finalean ezustea emanzuen Nartabeteo Jon Apezetxea herritarri irabazi zion.

OLAZABAL, Mikel
Aresoko pilotari gazteak Aspe enpresarekin aurrekontratua sinatu du.

PAXAKA
Elizeiri eta Arrieta saratarrek Frantziako lehen mailako pasaka txapelketa irabazi zuten martxoaren 7an Sarako trinketearen. Baigorriko Zuburu eta Lataste menperatu zituzten, 13-6. Baztan-Bidasako V. txapelketari dagokionez, Oitzko Mendiola anaiek eta Fagoagak bigarren aldiz irabazi zuten.

RODRIGUEZ, Ander
Igerilari beratarrak Gipuzkoako txapeldun izan zen junior mailan eta horrek Euskal Herriko eta Espainiako txapelketan parte hartzeko eskubidea eman zion.



Julen San Miguel.

SAN MIGEL, Julen
Abuztuaren 29an egin zuen debuta erremonte profesionalean Julen San Miguel, 17 urteko atzelari azkarra. Ezkurra, Lizaso, Etxeberria III, Olazar, Uterga, Erkizia eta Iribarrenekin batera, beraz, zortzi dira orain profesionalean ari diren erremontelari doneztebarrak.

TELLETXE, Xabi
Mendi bizikleta jautsieran Euskal Herriko txapelketa irabazi zuen txirrindulari igantziarrek herrian bertan ekainaren 5ean, Junior mailan, Andoni Martikorena beratarrak nagusitu zen.

TRANCHE, Norberto
75 urteko pilotari eta pilota irakasle igantziarrek omenaldia jaso zuen azaroaren 28an Irungo Ramuntxo trinketearen eskutik. Frontoi eta trinketeko pilotari bikaina izan zen Tranche.

VILA, Patxi
Italiako Giroan bikain ibili zen txirrindulari beratarrak. Eritasun baten ondorioz ez zuen Espainiako Vueltan parte hartzerik izan eta berriki, Lampre-Saeco taldean segituko duela jakinarazi du.



Nafarroako judo txapeldun doneztebarrak, Oskar Mindegia irakaslearekin.



Elizeiri eta Arrieta saratarrek, Frantziako pasaka txapelketan irabazie.

AGENDA
egunez
egun**BERTSOAK****BERA**

Abenduaren 26an bertso saloa Kultur Etxean 20:00etan. Sebastian Lizaso, Jon Barberena, Miren Artetxe, Xabier Silveira eta Estibou Arozena. Gai-jartzailea: Manolo Arozena. Sarrera: 5 euro.

SUNHILLA

Urtarrilaren 8an bertso-afaria Ulibeltzak elkarteak, 21:30etatik aitzinera. Angel Mari Peñagankano, Amets Arzallus, Xabier Silveira eta Estibou Arozena. Gai-jartzailea: Patxi Larretxea.

GOIZUETA

Abenduaren 29an bertso-magia Udalebreko Ganbaran, 19:00etan. Kultur Elejiraren barrenean.

ZINEMA**BERA**

Abenduaren 28an «Ilargiaren sekretua» 5 urtetik goitiko haurrentzako zinema izanen da Kultur Etxean 17:30etan.

KONTZERTUAK**ELIZONDO**

Abenduaren 8an Hiru Truku taldeak kontzertua eskainiko du Lur diskotekan, 20:00etan. «Nafarroako kantu zaharrak» diskoaren aurkezpena.

GOIZUETA

Abenduaren 30ean leitzako Asketa Abesbatzaren kantaldia izanen da 20:00etan Ganbaran.

SOLASALDIK**ELIZONDO**

Urtarrilaren 4an «Frankismoaren esklabuak Nafarroan» izeneko solasaldia eskainiko dute Iker Frias, Edurne Beaumont eta Fernando Mendiola Arizkuneari 20:00etan.

JAKIN BEHARREKOAK**Noiz eta nola erabili zigorra**

Zigor fisikoa ez da batere eraginkorra hezterako orduan

Gurasoen lan oso garrantzitsua (garrantzitsua ez bada), beraien seme-alabak hezitzea da. Haurrek beraien kondukta erregulatzen eta kontrolatzen ikasi behar dute, eta hori muga argi eta egonkorra ezarri lortzen da. Dena den, kontuan hartu behar da gure seme-alabak hazten diren neurrian, hezteko modua ere aldatzen joan behar dela heldutasun horren arabera. Modu berean, jakin behar dugu haurrek normalean ez dutela beraien «gaixakeriak» fede txarrez egiten, baizik eta autokontrola falta dutela. Egokiena zigorrak jarri gabe hezi ahal izatea izanen litzateke. Berez, hagitzez ere eraginkorra da jarrera onak indartzea txarrak zigortzea baino. Egia erran, hagitx zaila da beti hori horrela egitea, beraz, zigorrak jartzerako orduan zenbait puntu kontuan



Zigorrak jartzen baldin baduzu betearazi egin behar da, eraginkorra izatea nanhi baduzu,

hartu beharko dituzu:

- Zigor fisikoa ez da batere eraginkorra hezterako orduan. Haurrak gauzak lortzeko modu bakarra biolentziaren bidez dela ikastea lortuko duzu bakar-bakarrik eta horretaz gain, haurrak

ez du bere jarrera autokontrolatzen ikasiko.

- Batzuetan «Denbora kanpora» delakoa erabiltzea aski izaten da. Metodo honetan haurra egoeratik urruntzen da eta leku zehatz batean den-

bora batez uzten zaio. Adibidez, gela batean paretari begira (haurrak duen urte bakoitzeko minutu bat baino gehiago e zaio inoiz utzi behar).

- Zigorrak jarrera «txararren» arabera izan behar du eta egoera moldatzeko izan behar du. Hau da, janaria lurrera nahita bota baldin badu, zigorrak eraginkorrena janaria bildu eta zikindu duena garbitzea izanen litzateke. Akatsa gertatu eta berehala jarri behar zaio zigorrak. Gaizki portatu eta bi egunera zigorrak jartzeak ez du deustarako balio.

- Zigorrak jartzen baldin baduzu, ez ezazu bertan behera utzi eta haurrari betearazi. Bertzenaz, sendotasun faltaren irudia emanen diozu eta haurrak ez ditu serioski hartuko zigorrak.

Rakel AMIGO
Bortzirietako Gizarte Zerbizua

LIBURUAK

Mitoen bilakatzea:
Akaberak eta iraupena

Anuntxi ARANA

GATUZAIN, 2004

Mitoak historian gairi eta historia mitoetan barna. Nahiko egonkorak izaten dira mitoak beren egiturari eta bostehun urte dituzten kondaira batzuek antza handia dute XX. mendean bildu izan direnekin. Hala ere, eraldaketak ezagutu dituzte denboran zehar, kontatzaileen testuinguru ekonomiko, sozial, edo izpiritualako berrikuntzak bereganatu baitituzte. Horrela onartu ditu mitologiak deabrua eta Ama Birgina, bere erara moldaturik eta

bere moduko sinkretismoa sortuz. Bertze elementuak ere bereganatu ditu, hala nola aurrerapen teknologikoak eta suzko armak, izaki mitikoetatik begiratzeko edo haien suntsitzeko erabiliak izan direnak. Alabaina, suntsitu ondoan berdin azaltzen izan omen dira laminak, jentilak eta horrelakoak, eta akaberarik akabera iraun dute mitoek. Hala dio 1947an Aiaran sortu eta egun Angelun (Lapurdi) bizi den Anuntxi Arana idazleak.

Eguberrietako programazioa Lur dantzalekuan



abenduak 25
Eguberri eguna
Txutxin Ibañez,
Jalisko Band eta DJ-ak

urtarrilak 05
Errege bezpera
12etatik aurrera DJ-ak

abenduak 31
Urtezahar gava
Besta sorpresa (DJ-ak...)

urtarrilak 07
Sarrera doan
Lur Tabernan Musika
zuzenean eta DJak

urtarrilak 01
Urteberri eguna
Lur Tabernan DJ-ak...

urtarrilak 09
Larunbata
8etan **Hirutruku** Baztandarren
12,30etan **DJ**ak Biltzarrak antolatua

AUTOBUSAK herrietara itzultzeko goizeko 7etan

>>1 Lur dantzalekua _____ Lekarozko bidegurutzea, Gartzain,
Ziga, Aniz, Berroeta, Almandoz, Oronoz,
>>2 Lur dantzalekua _____ Narbarte, legasa, Doneztebe, Arraioz
Elizondoko plaza, Elbete, Arizkun,
Erratzu, Amaiur, Azpilkueta



elizondo(nafarroa)

www.lurelizondo.com

00-34 **948 63 54 58**

Sau honetan inportatu jarriko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebista web-argitailean da (http://www.ttipi-ttapa.com) gero argazkariarekin 7 € Printu Kudeaketa 3000 0180 53 0703304826 konsumo berritu eta sustatzearen baliabidea izan daiteke. Gero argazkariarekin.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sau honetan partikular, profesional eta merkatariaren informazioa eta zerbitzuak berritu ematen da. Ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratutako diren argazkariaren ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdut / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

- ELIZONDO.
- 2. eskuko pisuak salgai.
- Erakuntza berriko pisuak salgai.
 - DÖNTEBE.
- Erakuntza berriko pisuak eta lokal komertzialak salgai.
 - BORTZIRIAK.
- Eskara handia dagoenez baserri eta bostak erosten dira.
 - BERA.
- Pisu pare bat salgai.
- Terrenoak erosten dira.
 - LESAKA.
- 2. eskuko pisu bat salgai.
 - ARANTZA.
- Etxe bat salgai.
 - BAZTAN-BIDAZOAN.
- Baserri, bostak, ebak, pisuak eta lur eremuak salgai.
- 948 481 841 / 948 580 705 / 948 579 656

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Kiroldegia ondoan pisua salgai. Hiru logela, sukalde eta komuna berriak, egongela eta trasteroa. Bajera ere badu nahi izanez gero. = 661 931727.

ELIZONDO. Santiago karrikan 94 m²ko pisu mobleztatu (altzari berriak) salgai, = 696 042946 (16.00etatik aitzinera).

ELIZONDO. Santiago karrikan 100 m²ko pisua salgai. Lehenbiziko solairua. Aukera ona. = 610 533926 edo 948 635288.

ERRATZU (Baztan). Las-ter Babes Ofizialeko Etxebizitzak (VPO) erakikio dira. Promociones Lindutz Baztan. = 676 509212.

ETXEBIZITZAK

102 Erosi

BORTZIRIAK-MALERREKA-BAZTAN. Baserria edo etxea erosiko nuke. = 943 392358 edo 652 759248.

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

LESAKA. Pisua errentan hartuko nuke. = 948 247808 (bulego orduetan).

LESAKA. Pisua errentan hartuko genduko. Premiaz-

ARANTZA ZVRGINDEGIA

José Miguel Escalante

Klase guztietako

zurgin lanak

Ofiz. itza: 948-634068 • ARANTZA

koa. = 667 225661 edo 606 980440.

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

BERA. Pisuakidea bilatzen dut. = 669 422122.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Salgai

ITUREN. 42 m²ko baje-
rak salgai. = 652 764613.

BERA. Garaje salgai Agera auzoan. = 686 736403.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

ALKALAGA. Garajea errentan ematen da. = 649 161830.

BERA. 135 m²ko lokal komertziala errentan ematen nuke Iturandeta karrikan, Bera erdi-erdian. = 678 948977.

GARAJEAK/LOKALAK

111 Bertzelakoak

LESAKA. Ileaipaindegia eskualdatzen dugu, toki onean eta sartzeko prest. = 670 218232 edo 652 746800.

LURRAK/ORUBEAK

113 Erosi

Oronoz, Oieregi edo NARBarte inguruan lurra erosiko genduko etxe bat egiteko. = 619 980909.

BORTZIRIAK. Lurralde mi-
resgarri honetan bizitzeko
asmoz, lur eremu bat erosi-
ko genduko. = 676 276722
edo 629 476643.

ADOS

ELIZONDO ADOS INMOBILIARIA

HELBOIA: SANTIAGO KARRIKA, 43

TELEFONOA: 948 580705

ORDUTEGIA:

astelehenetik ostiralera:

goizez 9:30 - 13:30;

arratsaldez 16:30 - 19:30;

larunbatetan

9:30etatik 13:00etara

DONETEBEN BETIKO LEKUAN

SEGITZEN DUGU:

Perrakia, 9 • Tel: 948451841

Korreo elektronikoa:

ados@ados-inmobiliaria.com

WEB: www.ados-inmobiliaria.com

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

Ingelesko klase partiku-
larrak emango genituzke.
Irakasleak ingeles natiboa
eta ingeles kamerako azken
urtean dagoen ikaslea izan-
nen ginateke. Ikaslearen
etxera joateko prest gaude.
= 948 637296.

ADOS abokatuak

Zerbitzu juridikoak

Santiago karrika 47

ELIZONDO

Tel: 948 580705

Lan bila zabilta?

LAN ESKAINTZA

OSTALARITZA

Sukaldariak, laguntzaileak.

Plaza libreak

Diputaziorako.

Informazioa doan.

PEOIAK

22 lanpostu bete behar dira

Lizarran, Burlatan, Doneteban,

Berrioplano eta Baraingo

Udaletxetan.

Informazioa doan.

LAN ESKAINTZA

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

Galar, Berriozar, Fitero, Burlata,

Lizarran, Baraingo Udaletxetan

lanpostuak bete behar dira.

Informazioa doan.

Mantenimendua

Pisoiak, langileak, soldadutzaileak,

zurginak, igeltseroak, elektrizistak,

mekanikoak, gidaria, 21 lanpostu

libre Burlatan, Miranda de Arga,

Doneteban, Lizarran, Berrioplano,

eta Baraingo Udaletxetan.

Informazioa doan.

Presta zaitez. Informazioa doan.

948 199 596



**NORBAIT ZORIONTZEKO,
BIDALI BERE ARGAZKIA,
TESTUA ETA 0,27
EUROKO 13 SEILO
TTIPI-TTAPAKO
HELBIDERA:**



ttipi-ttapa
Andutzeta, 12
31760 ETXALAR

errebelatu zure argazki digitalak
Beep-en
 errebelatu digitalaren zerbitzu berria

ekarri zure barietateko
 euskarri digitala eta
 bildu zure argazkiak
 paperatik hoberean
 errebelatuak

PREZIORIK HOBERENAK

10 x 15 cm	0,19 €
13 x 18 cm	0,29 €
15 x 20 cm	0,75 €
20 x 30 cm	2,40 €
30 x 40 cm	5,90 €
VCD (BideoCD)	2,90 €

Prezioak BEZ barne dute

BEEP BERA
 Kanttonberri, 3 Behea
 31780 BERA

Tfnoa: 948 630 132
 bbera@datalogic.es

CLICK & BEEP

Errebelatu digitala online

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



Merkealdiak



ERAKUSKETA: Bittiria 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31770 LESAKA

bordatxo k ||

Ospakizun zoriontsuak opa dizkizue ||

Gabon-gaua eta Eguberri Eguna familiarekin...

Eguberri eguneko gaua Bordatxon, zure lagunekin

25 eko Larunbat-gaua (Eguberri Eguna)

Besta gau aski berezia
dj julenek bereziki prestatu eta
hautatutako musikarekin

Ah, Bordatxo baino lehen hartu zure tragoxka



Eguberri
Zoriontsuak ||

Urte
berri on ||